



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko azaroaren 22a

134. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- 10-22/LEY-00018. Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Osoko zuzenketa (2. or.).
- 10-22/LEY-00012. Foru Lege proiektua, justizia errestauratiboari, bitartekaritzari eta jardunbide errestauratibo komunitarioei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (43. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

10-22/LEY-00018. Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.

OSOKO ZUZENKETA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Navarra Suma talde parlamentarioak Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketa. Proiektu hori 2022ko azaroaren 9ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Osoko zuzenketa, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztua

ORDEZKO TESTUA

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Gobernuak lege proiektu bat aurkeztu du eztabaida eta onespenerako, eta, alde batera utzirik zenbait oldozpen koiuntural, legegintzaldi-itxieraren urtean abiatuta gaudelakoarekin ere zerikusia badutenak, proiektu hori azken zazpi urteetan zehar bai gobernu honek bai aurrekoak aplikatutako zerga-politikaren jarraikeria hutsezkoa da. Zerga-gehikuntza etengabeko politika bat da, Nafarroari lehiakortasun fiskal eta ekonomikoa kentzen diona. Hori horrela, Navarra Suma talde parlamentarioaren iritziz ez da hori Foru Komunitatearentzako proposamen egokia, eta horregatik osoko zuzenketa aurkezten dio aipatu lege proiektuari.

Osoko zuzenketa hau oinarritze aldera hemen ematen diren argudioak Parlamentuko Erregelamenduak berak 128. artikuluan aurreikusten dituen arrazoiaren ildokoak dira, artikulua horrek adierazten baitu zuzenketa horiek direla foru lege

proiektuaren egokitasunari, printzipioei edo oinarrii buruzkoak izanik proiektua Gobernuari itzul dakion eskatzen dutenak edo proiektuaren testuaren aurrean ordezeko testu oso bat proposatzen dutenak.

Horrenbestez, egokitasunari dagokionez, beharrezkoa da coiuntura ekonomikoa ebaluatzea, lege proiektuan proposaturiko fiskalitatearen komenigarritasuna epaitzeko. Nafarroak, gure inguruko ekonomiek bezalaxe, une latza bizi du, inflazioaldi bortitz bat nagusitu denekoa, prezio-gorakadaren tasak azken berrogei urteetan ikusi ez bezalako balioetaraino bultzatu dituena. Inflazioaldi hori beste kolpe bat da familientzat, enpresentzat eta Nafarroaren ekonomia osoarentzat, metatu egiten zaiona pandemiaren krisiagatik jasan dutenari, eta larriagotu ere egingen dena Europako Banku Zentralak eta beste banku zentral batzuek inflazioaldiari mugapean eusteko ahaleginez erabakitako interes-tasen igoeraren ondorioz. Erakunde guztien azken aurreikuspenek, hala nola Europako Batzordeak jaulkitako azkenekoek, BPGren hazkundearen gerarazpen nabarmena iragartzen dute jada, eta are atzeraldi-egoeren berri ematen dute europako zenbait herrialderi buruz, Alemania barne.

Testuinguru konplexu honetan, egokiena tributu-neurri fokalizatuak abiaraztea litzateke, alde batetik arindu egingen litzatekeen errenta ertain eta baxudun familiak inflazioaren ondorioz pairatzen ari diren zama fiskal handiagoak, noiz eta inflazio horixe bera familia haien eskuerako errenta ere murrizten ari denean. Inflazioa zerga bidegabe bat da, ez dena eratoritzen ez Parlamentuaren ez Gobernuaren ezein erabakitatik, eta bereziki astintzen dituena hain zuzen ere bere ondorioei aurre egiteko bitartekorik gutxien duten horiek, horrela halaber apurturik tributu-zamaren banaketa ekitatiboaren tributu-printzipioa. Horregatik, esate baterako, ari dira Europako zenbait herrialde beren tributu-legedietan zerga-tarteen

deflaktazio automatikoa ezartzen PFEZaren balio-kideak diren zergetarako. Jokamolde horrek ez du zerga-murrizketarik ekartzen, baizik eta errenta erreal bat eta bera gehiago ez zamatzeko neurri bat, halatan errespetaturik ahalmen ekonomikoaren tributu-printzipio oinarritzkoa.

Bestalde, familiengan duen inpaktuaren antzera, inflazioak, eta bereziki kostuen inflazioak, kinka larrian ipintzen ditu bai enpresak bai norberaren konturako langileak, horrela mehatxupean jarririk ekoizpen-ehunduraren parte bat, oinarritzat dutena ekonomiaren hazkundeak eta enplegu-sorkuntzak; hots, ongizatearen estatuaren zutabe direnek. Bestalde, fiskalitateak bere helburu gisa hartu beharko luke tributu-esparru bat ezartzea enpresentzat, haiei oxigenoa emanen liekeena, aurre egin ahal izate aldera kostu- eta prezio-igoera bortitzak haien ekoizpen- eta merkataritza-jardueraren bilakabide normalari jartzen dioten presioari.

Alabaina, lege proiektuak ez ditu giltzarri horiek kontuan hartzen, eta horrexegatik, ezta, Navarra Sumaren ustez, egokitasun-irizpidea ere, zeina Parlamentuko Erregelamenduak aipatzen baitu osoko zuzenketa bat justifikatzeko erabili beharrekoak direnen artean.

Egokitasun-irizpide hori bera aplikaturik, esan beharrekoa da ezen, behin une katramilatsu hauek gauditurik, lehentasuntzat daukatena, arestian adierazi bezala, enpresen eta familien oraintxe bertako egoerari erantzutea, sakoneko zerga-erreforma bati ekin beharko litzaiokeela, berreskuratze aldera, Nafarroarentzat, esparru honetan azkeneko urte hauetako zerga-gehikuntza errepikatuen kariatz galduz joandako lehiakortasuna. Nafarroa zenbait tribututako presio fiskal handiagotik abiatzen denez gero, lehiakortasun fiskalaren ezinbesteko berreskurapenak hobekizun eta eginkizun franko du.

Dena den, ordezeko testu honetan sakonera horretako erreformarik biltzen ez den arren, ez baita horretarako une egokia, Nafarroan presio fiskalak izan duen goranzko ibilbidea hauspotu duten printzipioak eta izpiritua nabarmenak dira Nafarroako Gobernuaren lege proiektuan, eta horiek ere justifikatzen dute Navarra Sumak egindako osoko zuzenketa hau. Are gehiago: ez horregatik bakarrik, baizik eta, halaber, hartu ez diren eta, horregatik, Nafarroako Gobernuak aurkeztutako lege proiektuan jasota ez dauden neurri fiskalengatik ere. Zehazki, gure tributu-sistemari desaxola gero eta handiagoa nabari zaio Nafarroaren jarduera ekonomiko eta hazkunderako pizgarriak bezalaxe uxagarriak ere sortzeari dagokionez fiskalitateak daukan eraginarekiko.

Fiskalitatea gero eta gehiago ikusia da diru-bilketako tresna eta errenta-birbanaketarako eragin-garri gisa. Egia bada ere azken hori dela zergek eta transferentziek bete beharreko funtsezko zeregina, ekitatea bezain printzipio garrantzitsua xede, hori bezain egiazkoa da efizientzian ere eragiten duela, eta distorsioak sortu ahal dituela, desiragarriak diren beste jomuga batzuen erdiespenean enbarazu egin dezaketenak, hala nola ekonomi jardueraren esparruan, errenta-lorpenarenean eta enplegu-sorkuntzarenean, zeinak beren aldetik beharrezko baldintza baitira birbanaketari ekin ahal izateko baliabide gehiago edukitzeko.

Azken puntu horrek printzipioen edo izpiritua-oren oroitarazpen bat ere egiten du. Errenta-birbanaketa eta ekitatea aldarri hartuta, azkenaldi honetan zigor-kutsu halako bat sumatzen da tributu jakin batzuen ezarpenean, baita administrazio zentrolean ere. Horiek Nafarroan aplikatzen dira, eta ematen du horien bitartez eragile zehatz batzuk seinatu nahi direla dauzkagun problemen errudun gisa. Logika hori, manikeoa izateaz gain, oso arriskutsua gertatzen da, zatidura eta mesfidantza sortzen dituelako. Bestelakoa izan beharko lukete ereduak eta izpirituak, beste norabide bateranzkoak: hots, mugarte instituzional faboragarri bat sortzeranzkoak, non eragile guztiek modua izanen luketen aberastasun-sorkuntzara biltzeko, halatan baliabide gehiago izateko eskueran, beharrean daudenei laguntzeko modukoak eta ongizatearen estatu moderno bati dagozkion zerbitzu publikoen eskaintza ziurtatzeko modukoak.

Alde horretatik, Navarra Sumak oniritzia du Gobernuaren lege proiektuan jasotzen diren neurri oso zehatz batzuei buruz. Alde horretatik aipatu beharrekoak lirateke, besteak beste, aurkezturiko arauak errenta batzuetarako eskaintzen dituen salbuespenak, bai eta genero-indarkeriaren biktimei ematen zaien aukera ere, tributu-zorren gaineko beren erantzukizuna mugatu dakien eskatzekoa, beren erasotzailearekin baterako tributazioa hautatuta edukita izatearen kasuan; halaber, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko xedapenen testu bateginean jasotzea halako salbuespena zeina jasota baitago Genero-indarkeriaren biktimei diren umezurtzen babesa hobetzeko 2/2022 Lege Organikoan, edo arte eszeniko eta musikaletako zuzeneko ekitaldietan inbertitzeagatikoki kenkari berria.

Aipaturikoez gain, lege proiektuak beste neurri batzuk ere jaso ditu; besteak beste, talde honek Parlamentuan behin baino gehiagotan aurkeztu izan dituenetako zenbait, sistematikoki errefusa-

tuak izan direnak, ez haien merezimenduengatik, antza denez bai baitauzkate, proiektuan jaso dira eta, baizik eta proposatzailea nor zeukaten aintzat hartuta. Esate baterako, eta besteak beste, errenta-mailarik apalenerako pertsonentzat PFEZaren aitortpena egin beharra bertan behera uztea, tokialdaturiko langileentzako araubide fiskal berezia, edo izaeraz egiturazkoagoak diren neurri batzuk, berrikuntzarekin eta ekintzaitzarekin zerikusia dutenak. Horiek jasota datoz ordezeko testu honetan, baina hobekuntza ohargarriak dakartzaten aldaketa batzuekin, ezen, kasu batzuetan, lege proiektuak aurkezten dituenak eskasak dira, eta, beste batzuetan, sektore oso zehatzetara lerratuegiak; horregatik, beharrezkoa da haien eragin-esparrua hedatzea Foru Komunitate honentzat definituriko Espezializazio Adimentsuaren Estrategian sartuta dauden sektore guztietara.

Ordezko testu honek orobat jasotzen ditu lege proiektuan bildutako zenbait aldaketa, doikuntza eta egokitzapen, zerga-araudia hobetzen laguntzen dutenak, haien eskutik araudi horren puntu zalantzarriak argituz, araudia Europako edo nazioko araudien ildora eramanez, tributu-arlokoak ez diren aldaketetara egokituz edo epaien araberak aldatuz.

Ordezko testu honek aldatzen ditu, besteak beste: ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako testu bategina, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearena; Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua (174/1999 Foru Dekretua, maiatzaren 24koa); 13/1992 Foru Legea, azaroaren 19koa, Ondarearen gaineko Zergarena; 26/2016 Foru Legea, abenduaren 28koa, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa; Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko xedapenen testu bategina, abenduaren 16ko 250/2002 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia; Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Erregelamendua (16/2004 Foru Dekretua, urtarrilaren 26koa); Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko xedapenen testu bategina, apirilaren 26ko 128/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.

Legeak 7 artikulua dauka.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan aldaketa batzuk sartzen dira.

Hasteko, errenta batzuk salbuetsitakotzat jotzea. Besteak beste, ezintasun iraunkor osoaren prestazioak, 55 urte baino gehiagoko adina duten zergadunek jasotzen dituztenak; era berean, ezin-

tasun iraunkor absolutuaren edo baliaezintasun handiaren ondorioz aitorturiko prestazioak; amatasun- eta aitatasun-prestazioak; lege proiektuak jasotzen dituen NBEUF-Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren laguntzen salbuespena % 60ra arte igotzen da; eta 5 portzentaje-puntu gehiagoko kenkaria ezartzen da nekazaritza-ustialekuetan titulartasun konpartitua daukatentzat.

Pandemiaren ondoren, lanaren parte ez-txiki bat urrunetik egiten da, eta horrek behartzen du lan egiteko modu horren ondorio fiskalak arautzera. 15. artikulua aldaketak bilatzen du ez dadila gauzazko ordainsaritzat har urrutiko lana edo telelana egiteko beharrezkoak diren bitartekoak, ekipoak eta erremintak entregatzea edo erabiltzeko lagatzea, oinarritzat hartzen delako ez litzatekeela diferentziarik egon beharko lantokian eskura jarritako bitartekoen eta urrutiko lana egiteko eskura jarritakoen artean.

17. artikuluan proposatzen da kapital salbuesia hedatzea aurreikuspeneko aurrezkiaren %40raino, Euskadiko Foru Ogasunek egiten duten bezala; horrela, aurrezki-mota hori hauspotu nahi da.

18. artikulua, bere aldetik, lan-etekin garbia finkatzerakoan gastu kengarritzat har daitezkeenak hedatzen ditu etxean ahaide jakin batzuk zaintzen diharduten pertsona kontratatuei ordaindutako soldatak barne hartzeraino. Era berean, 35. artikulua aldaketak gastu hori kengarritzat jotzen du zuzeneko zenbatespen erraztuaren modalitatean eta zuzeneko zenbatespen bereziaren modalitatean enpresa- edo lanbide-jardueren etekin garbia finkatzeari dagokionez. Neurri honen helburua da etxean lan egiteko pertsonen kontratazioa sustatzea eta iruzur fiskala edo bestelako iruzurrak saihestea, baita ezkutuko ekonomia saihestea ere; eta, horretarako, kontratu horiei lotutako errentak azaleratu behar dira.

25. artikulua aldatuz, lortu nahi da etxebizitzaren errentamenduetan lortutako etekinen murrizketa berreskuratzea, baina horiek aitortu dituzten zergadunentzat baino ez. Estatuan dagoenaren antzeko neurri bat da. Horrela, pizgarria ematen da etxebizitzak errentan jartzeko, merkaturian etxebizitza gehiago jartzen dira, tratamendua hobeturik despopulazio-arriskuan dauden landa-eremuetan kokaturiko etxebizitzentzat.

Hurrengo artikuluetako batean, 31.ean zehazki, xedea da fiskalitatea ez izatea oztopo bat ekonomia- eta enpresa-ikuspuntutik baliozkoak eta beharrezkoak diren eragiketarako egiteko, eta eragiketarako horiek denboran atzeratu beharrik ez izatea.

Aldaketa horien bidez, herentziak egin ahal izanen lirateke bizirik, heriotzaren unera arte itxaron beharrik izan gabe; horrela, fiskalitatea Nafarroako zuzenbide zibilean eta beste lurralde batzuetan, Gipuzkoan esate baterako, jada aurreikusita dago-enera egokituko litzateke.

Gaur egun, gerta daiteke eragiketa horiek ez egitea PFEZean eskualdatzailearentzat ekar dezaketen kostu fiskalagatik; beraz, kontua da "hildakoaren gainbalioaren" tratamendua Nafarroako Zuzenbide Zibilaren mendeko herentzien kasu guztietara zabaltzea, zuhurtasun jakin batzuekin, figura hori tresna bihur ez dadin inter vivos eskualdatzeak direla-eta agerian jartzen diren ondare-gehikuntzen ondoriozko tributazioa saihesteko. 39. artikulua ideia bera jasotzen du.

34. artikuluan portzentaje hobetuak ezartzen dira, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru lege proiektukoan aldean, baso-jardueretarako.

36. artikuluan aldaketa gehiago daude, xede dutenak, jarduera ekonomikoaren etekin garbia kalkulaterakoan, amortizazioak gastu kengarritzat hartzea, adibidez. Zuzeneko zenbatespen erraztuaren modalitatean, etekin garbi positiboaren murrizketa 5 portzentaje-puntu igotzen da. Baldin jarduera ekonomikoa despopulazio-arriskukotzat jotzen den udalerrri batean egiten bada, murrizketa hori % 20koa izanen da. % 25erainokoa, zuzeneko zenbatespen berezia aplikatzen bada.

Hain zuzen ere zuzeneko zenbatespen bereziko sistema horretan, zenbait afera txertatzen dira. Sistema horri atxiki ahal izanen zaizkio beren negozio-zifraren zenbateko garbia 250.000 euro baino gehiagokoa ez izanik baliokidetasun-errekarguaren araubide berezia edo BEZaren araubide berezi erraztua aplikatzekoa zaienak. Gainera, igo egiten dira etekin garbi positiboari aplikatzekoak diren kenkariak: orokorra, % 15eraino; nekazaritza-, abeltzaintza-, baso- edo arrantza-jarduerak, % 45eraino; salgaien errepide-garraio-ko jarduerak, % 55eraino. Asmoa da haien egoera fiskala hobetzea, zeren eta modulu-sistema kentzeak jada egoera okertu baitzuen, larriagotu egin zena ekoizpen-prozesuko kostuei eragindako prezio-igoeren krisiarekin.

41 eta 42. artikuluetarako proposaturiko testu berriak eta hirurogeita seigarren xedapenaren ezarpenak asmozat dute PFEZean zergapeturik dagoen ondare-gehikuntzat hartzea, bai doako eskualdaketatik bai kostu bidezkoetan, zergadunek errealki lorturiko etekina, Espainiako Konstituzioaren 31.1 artikulua jasotzen duen ahalmen

ekonomikoaren printzipioarekin bat. Neurri horren asmoa litzateke inflazioaren eragina aintzat hartzea, ez zergapetzearren pertsona fisikoei suertatzen zaizkien ondare-gehikuntzak, etekin-kalkulua egiten denean dirutan adierazitako eskuratze-balioaren eta eskualdatze-balioaren arteko diferentzia zorrotzetik eratorritzen den gehikuntzaren gehiegizko zenbatespenean oinarrituta. Neurri hori kalkulu-doikuntzako sistema bat ezartzekoa da, Nafarroako Foru Komunitatearen inguruko lurraldeek eta, zehazki, Euskadiko hiru lurralde historikoei PFEZari buruzko araudian horri buruz tankeratzen dutenaren antzeko modura.

52. ter artikulua berriak langile tokialdatuentzako araubide berezia ezartzen du, zeina kokatzen baita Nafarroako Foru Komunitatearen garapen ekonomikoarekin konprometitzen diren kualifikazio handiko langileak erakartzeko politiketan. Ideia hori Navarra Sumak jadanik lehenagotik azalduta dauka legegintzaldi honetan, eta orain lege proiektuak jaso egiten du. Haatik, artikulua horri ematen zaion testuak tratamendu zabalago bat jasotzen du, ezen Nafarroara atzerritik tokialdaturiko langileentzako araubide bereziari buruz ezartzen den tributu-tratamendua zorrotza bezain lehiakorra da zuzenbide konparatuaren ikuspegitik; halatan, araubidea aplika daitekeen epea 10 urteraino luzatzen da, eta halaber zabalagotu egiten da araubide horren xede-gizataldea, barne hartzen baitira Foru Komunitatearentzat giltzarri diren jardueretan eta sektoreetan –zientifikoa, teknikoa eta finantzarioa kasu– diharduten kualifikazio handiko profesionalak. Horrez gain, zergapetzeari dagokionez, bertan behera uzten da egungo antolera, establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrei ez-egoiliarren errentaren gaineko zergako araupe-tzea aplikatzearena, zeinaren araubide bereziaren apartekotasun nagusiak abenduaren 27ko 225/2011 Foru Aginduan arautu baitziren. Ordezko testu honetan 52. ter artikulurako aurkeztzen den testuaren bitartez, zerga-araubide bereziaren oinarriak Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legearen testubateginean bertan ezartzen dira, halako moldez non pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren zergadun egoiliar gisa zergapetuak baitira, zenbait hobariren eta gastu kengarri buruzko berezitasunekin.

60. artikulua aurkezturiko aldaketaren xedea da PFEZaren likidazioa-oinarriak doitzea PFEZeko tarifaren deflaktazio progresibo baten bidez, % 6 eta % 8,5 bitartekoa 50.000 eurorainoko errentetan, inflazioaren ondorioz galdutako erosahalmena berreskuratzearen. Deflaktazioa % 8,5ekoa izanen litzateke errentarik baxuenentzat, horrela konpentsatze aldera azpiko inflazio metatua. Bestetik, gutxieneko pertsonal eta familiarrengatik

kenkariak % 3ko deflaktazioa barne hartzen dute, azpiko inflazio horri hurbiltzeko; izan ere, Nafarroako Gobernuak jada % 5 igo zituen gutxieneko pertsonal eta familiarak, eta portzentaje hori ez da erosahalmena berreskuratzeko nahikoa. Hala ere, xedapen iragankor batean jasotzen da eragina 2022ko ekitaldian soilik izanen duen kenkari bat, 45.000 eurorainoko errenta ertain eta baxuetarakoa, bai eta 65.000 eurorainoko baterako zergapetzearen araubideko familia-unitateentzako, haiei nolabaiteko erosahalmen-berreskurapena ahalbidetzearen. Baina neurri horien parte garrantzitsu eta beharrezkoa deflaktazioa da, horren bitartez baizik ezin baitira zerga-tarteak doitu prezioek iritsi duten goragoko mailara, zeinetatik ez baikara jaitsiko, zeren, baita inflazio-tasak murriztuko balira ere, prezioak ez bailirateke jaitsiko. Horrelako deflaktaziorik ezean, iraukeren bihurtuko gure jasan dugun inflazioak dakarren zerga-igoera mozorrotua. Bestalde, ezinbestekotzat jotzen da aurrezkiaren fiskalitatearen egungo egoera onbideratzea, zeina okerragotzeko suertatzen baita Nafarroako Gobernuak aurkezturiko lege proiektuan. Horretarako, aplikatzekoak diren tasak ez ezik likidazio-oinarriaren tarteak ere hobetu beharra dago.

Kenkariaren kapituluaren aldaketa batzuk egiten dira.

Lehenik eta behin, etxebizitzagatiko kenkariaren dagokienez, 62.2 artikulua xede du errentamendua faboratzea hain zuzen ere etxebizitza bat era horretan eskuratzeko zailtasunik gehienak topatzen dituzten artean, batez ere 35 urtera bitarteko gazteak edo familia ugariak; eta, horrez gain, zergadunek ohiko egoitza despopulazio-arriskuko landa-eremuetan ezar dezaten pizgarriak ematea; hori guztia, egungo kenkaria hobetuz, xede hartuta gai honetan Araba, Gipuzkoa edo Bizkaiko lurralde historikoetako araudian ezartzen diren pizgarrien antzeko zertzeladak izan ditza. Lanagatiko kenkariak % 8ra deflaktatzen dira, 50.000 eurorainoko lan-etekin garbieran. Energia berriztagarriko instalazioetako inbertsioengatiko kenkariaren dagokienez, lege proiektuaren testuan 5 portzentaje-puntu hobekuntza ezartzen da, kenkari horietan, energia-komunitateentzat, eta horri beste 5 puntu gehitzen zaizkio, baldin eta inbertsio hori egiten bada kasuko departamentuak despopulazio-arriskukotzat jo duen udalerritan. Ikusmolde hori bera proposatzen da Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 64. artikuluan.

Gainera, bi kenkari ezartzen dira, familia ugariaren eta ama eta aita langileen egoeraren arabera. Kenkari horietako lehenbizikoa da 0-3 urteko haurhezkuntzako ikastetxei ordaindutako kopuruen-

gatikoa, eta bigarrena, urtean 432 euroko kenkari bat, hiru ondorengo ahaide edo gehiago dituzten subjektu pasiboentzat, abenduaren 31n familia ugariatzat jotzen diren familia unitateak direnean, Familia Ugariari buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legean ezarritakoaren arabera, eta guraso bakarreko familiak direnean, 5/2019 Foru Legean ezarritakoaren arabera. Bai kategoria bereziko familia ugariatzat, bai kategoria bereziko guraso bakarreko familientzat, kenkaria 648 eurokoa izanen da

Kenkariaren gaiarekin amaitzeko, PFEZean aplikatzeko kenkari berri bat ezarri nahi da, ekintzailatza sustatzeko eta jarduera ekonomiko berrien sorkuntzari bultzada emateko, batez ere zergadun gazteen artean, eta despopulazio-arriskuan dauden landa-eremuak garatu eta suspertzeko. Jaiotza-tasa eta hiru urte baino gutxiagoko seme-alabak dituzten gurasoen lana sustatzeko kenkari bat ere proposatzen da.

Azkenik, xedapen iragankor batek PFEZaren 2022ko laugarren hiru hilabetearen konturako ordainketa zatikatutik salbuesten du, norberaren konturako langileei kostu-igoerak ekarritako zailtasunei aurre egin ahal izateko.

Pertsona fisikoaren Zergaren Erregelamenduari dagokionez, hiru artikulua aldatzen dira. Lehena, 8. artikulua, bi helbururekin. Batetik, eta gertatu den prezio-igoerarekiko koherentziaz, asmoa da gaurkotzea pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari begira zergapetze salbuesitza jotzen diren lokomozio-gastuetarako eta mantenu- eta egonaldi-gastu normaletarako dieta eta ordainsarien zenbatekoak. Bestetik, eta COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz urrutiko lana edo telelana normalizatzen ari denez, lana egiteko modu horren ondorio fiskalak arautzea beharrezkoa gertatzen da. Urrutiko lanaren edo telelanaren kasuan, lan-jardueraren garapenarekin lotutako ekipo, erreminta eta bitartekoekin lotutako gastuetarako esleipenetik salbuestearen arazoia da ez litzatekeela diferentziarik egon behar lantokian eskura jarritako bitartekoaren eta urrutiko lana egiteko eskura jarritako postuen artean.

Bigarren artikulua, zehazki Erregelamenduko 56. a) artikulua, 15.000 eurora igotzen du errenta-aitorpena aurkezteko betebeharra ezartzen duen gutxieneko kopurua, Estatuak 2023. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko Lege proiektuan ezartzen duen bezala.

Azkenik, 71. artikulua atxikipen-taula berri batzuk jasotzen ditu, aitortpena egiteko betebeharraren igoera jasotzeko, bai eta 2023ko urtarrilaren 1az geroztik egin beharreko atxikipenak ere, 59.

artikuluaren jasotzen den deflaktazio progresiboaren bidez likidazio-oinarriak aldatzeari dagokionez.

Ondarearen gaineko zergak ere aldaketa batzuk ditu.

Familia-enpresek denboran zehar izan duten bilakaeraren ondorioz eta haien arrakasta eta jarraitutasuna haien ondarea eta jabetza ondorengo belaunaldiei transmititzearen mende dagoenez, transmisio horren ondorioa da jabetzaren hedapena familiaren adar ezberdinetan zabaltzea. Horregatik, familia-enpresaren salbuespenari eusteko, zabaldu egin behar da ahaidetasun-gradua hiru-garrenean, araua belaunaldien arteko eskualdaketa bilakaera horretara egokitzeko, 5. artikuluan zehazten den bezala. Artikulu hori bera ere honela aldatua da. Zenbait partaidetzen salbuespena aplikatzeko, ez dira jarduerarako beharrezkoak ez diren aktibotzat joko entitateak lortu eta banatu ez dituen etekinen zenbatekoa gainditzen ez duen eskurapen-balioa duten aktiboak, betiere etekin horiek enpresa- edo lanbide-jarduerak egiteagatik lortu badira. Muga izanen da urte horretan bertan eta aurreko 10 urteetan lortutako etekinen zenbatekoa. Muga hori aplikatzeagatik beharrezkoak ez diren aktibo gisa zenbatzen ez diren elementuek ezin izanen dute aktibo osoaren % 75 gainditu.

Neurri horren bidez, familia-enpresak atxiki eta berreskuratu nahi dira; izan ere, hori egitea funtsezkoa da ekonomiarentzat, zeina haiek erroztzearen eta sortzen duten inbertsioaren mende baitago. Neurriak eragina izanen du, batez ere, azken hamar urteetan irabaziak izan dituzten konpainia saneatuetan. Hain zuzen ere, azken hamarkadan dibidenduak banatzeari uko egin dioten konpainien mozkinak pilatutako kapitalaren tratamendua hobetzea da helburua, halako moduz non ez den zigortuko familia-enpresen enpresa-jarduerak sortutako aurrezpena. Neurri horri, Navarra Sumak zenbait aldiz proposatua eta gainerako alderdi politikoen ezezko botoa jasotakoa den horri, harrera egin zaio zenbait zerga aldatzeko lege proiektuan, baina zabaltasun gutxiagoz.

5. artikularekin amaitzeko, apartatu bat gehitzen zaio, ondarearen gaineko zergan pizgarria emate aldera ondarearen parte bat ekintzailetzarako inbertsiora bideratzen duten zergadunei. Lege proiektuak ideia hori jaso egiten du, baina modu murriztagoan.

Amaitzeko, salbuesteko gutxiengoa 800.000 euro izatea proposatzen da –orain 550.000 euro da–, gure inguruko lurralde batzuetan bezala, hala nola Araban edo Bizkaian, horrela ekidite aldera Nafarroan beste lurralde batzuetan baino ondare-

karga handiagoa ezartzea. Izan ere, gaur egungo egoeran desabantaila fiskal nabarmena dago, eta ondorioz, zerga-deslokalizaziorako arrisku begibistakoa. Halaber, 31. artikuluan ondarearen gaineko gutxiengoko zergapetzea Estatuaren gainerakoan dagoenarekin parekatu nahi da. Azkenik, ondarearen gaineko zergaren eta PFEZaren arteko tributazio konbinatuak oro har karga handiagoa eragiten du gure erkidegoan beste lurralde batzuetan baino, eta, kasu batzuetan, karga neurrigabe eta konfiskatzailea da. Horrenbestez, kontua da horrelako eraginak saihestea. Estatuan, gutxiengoko tributazio hori % 20koa da; eta EAEko hiru lurralde historikoetan, berriz, % 25koa. Proposatzen da Nafarroan % 20koa izan dadila.

Osoko zuzenketa honen erregistratze-egunean ez da oraindik ezagutzen Nafarroako Gobernuak iragarritako testua, zeinaren bidez zerga-tasen aldi baterako igoera baten berri eman baitu 3 milioi euro baino gehiagoko ondare garbientzat.

Sozietateen gaineko Zergan ere zenbait aldaketa egiten dira:

Horrela, “enpresa txiki” definizioan, negozio-zifraren zenbateko garbia 30 milioiraino igotzen da, erreferentziatzen hartzen baita Europako Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 1. Eranskinean Europar Batasunak enpresa txiki eta ertain zein diren jotzeko ezartzen den definizioan aintzat hartzen den batez besteko negozio-zifra. Horrela, handitu egiten da onura hartzen duten enpresen kopurua, definizioa doituaz Europako Batasunak ezartzen dituen baremoen ildotik.

20. artikulurako proposamenaren bidez, sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarria zergaren subjektu pasiboen ahalmen ekonomiko errealeran hurbildu nahi da enpresa guztientzat, haien tamaina dela-eta bereizketarik egin gabe, eta aplikatzeko denbora-mugarik ezarri gabe. Adibidez, obligazioa mugaeguneratzen denetik kreditu bat fiskalki kengarritzat jotzeko igaro behar den epea sei hilabetetik hiru hilabetera murriztuz.

25. artikularen testu berrian erregela berezi berri bat ezartzen da, azken urte hauetan ugaritu diren konkurtso-prozeduretan zehar unitate produktiboak eskuratzeari buruzkoa. Horrela, kontabilitate-arauekin bat etorritik, konkurtso-prozedura batean unitate produktibo bat eskuratzen denean, baldin unitate produktiboarekin jasotako aktiboen arrazoizko balioa unitate horregatik ordaintzen den prezioa baino handiagoa bada, kontabilitateko diru-sarrera bat sortuko da, aktiboak beren balio arrazoizkoan baloratu behar direlako, kontabilitate-ondorioetarako. Hori dela eta, emaitzen kontuan jasotako elementuen isilbidezko gainbalio ba-

tzuekin bat datorren «sarrera» bat aitortzen da, eta, jakina, ez dauka loturarik erabilgarri egon daitezkeen funts monetarioekin. Zuzenketa-araurik ez badago, orain arte gertatu den bezala, fiskalitatea galga bat izan daiteke konkurtso-prozeduretan ekoizpen-unitateak eskuratzeko, hain zuzen ere gainbalio tazitu horiei dagokien sozietateen gaineko zerga ordaindu behar izatearen ondorioz, eta zaildu egiten du indarrean dagoen konkurtso-legeriaren aitortutako xedea, hau da, lehiakidearen enpresa-jardueraren jarraitutasuna.

Enpresa-etekinak ibilgetu materialaren eta ukiezinaren eskurapenean eta inbertsio higiezinetan berrinberti daitezzen sustatzeko, 37. artikulua planteaturiko alaketak dio zerga-onurak eskualdaketa horietan lortu diren errenta guztiak hartu behar dituela, 2017ra arte zegoen bezala, eta Araban, Gipuzkoan edo Bizkaian ezarrita dagoen bezala.

48. bis artikulua kapitalizazio-erreserba bat sortzen du enpresen kapitalizazioa sustatzeko xedez, ondare garbia handituz eta, horrekin batera, enpresen saneamendua eta lehiakortasuna sustatuz. Enpresa kapitalizatorako erreserba hau sortuta kaudimen handiagoz egin nahi zaie aurre krisi ekonomikoari.

43. artikulua (107. artikulua moduan) ezabatu nahi ditu legean dauden mugak likidazio-oinarri negatiboan bidez konpentsatzeko zenbatekoie dagokienez, muga horiek dirua biltzeko baitira, besterik gabe. Muga horiek ez kentzeak eragin dezake enpresa askok beren likidazio-oinarri negatiboak behin betiko galtzea, aurreko ekitaldian izandako galeren ondorioz, eta hori gaitasun ekonomikoaren printzipioaren aurka doa.

Zerga-tasei dagokienez, 51. artikuluan enpresa tamaina ezberdinetarako zerga tasa orokorrak murrizten dira: % 24 orokorra, % 22 enpresa txikientzat eta % 19 mikroenpresentzat. Zentzu berean jarduten da gutxieneko zerga-tasekin 53. artikuluan.

58. artikulua % 15era igo du entitatearen jardura ekonomikoari atxikitako ibilgetu materialeko elementu berrietan eginiko inbertsioengatikoen kenkaria.

61. artikuluan jasotzen da software aurreratua eta berrikuntzaren kontzeptu fiskalen errebisioa, eta ehuneko bost handitzen da berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatikoen kenkaria, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Legean deskribatzen diren kasuetan. Hala ere, ordezkotestu honen 61. artikuluan jasotzen da ETE Berritzaile ziguiluekin akreditatutako enpresek ere ehuneko bosteko

kenkari gehigarria izanen dutela berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatik, halako moduz non enpresei pizgarri bat emanen baitzaie aipatu zigilua lortzera daraman berrikuntza sakon eta etengabearen bidea egin dezaten.

64. bis artikulua berriak jasotzen du garapen jasangarrirako eta ingurumena babesteko eta hobetzeko proiektuei atxikitako ibilgetu materialeko elementu berrietan eginiko inbertsioengatikoen kenkaria, zeina Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Legean definiturik agertzen baita. Hala ere, testu zabalagoa proposatzen da, kanpoan geratu diren Espezializazio Adimentsuaren Estrategiako sektoreak aintzat hartzeko. Horren guztiaren xedea da kenkaria ez ardaztea haize-energiaren eta fotovoltaikoaren osagaiak edo bateriak birziklatzearen eta berrerabiltzearen arloko eta hidrogeno berriztagarriaren ekoizpenaren arloko proiektuetan, bai zik eta zabaltzea nekazaritzako elikagaien sektorerera eta automobilgintzara, esaterako, alor horietan ere egon baitaitezke garapen jasangarrirako eta ingurumena hobetzeko proiektuak.

Kenkarien atalean, baita ere, 66. artikulua berrekuratu egiten du duela urtebete kendutako enplegua sortzeagatikoen kenkaria. Enplegua sustatzea bereziki garrantzitsua da ziklo ekonomikoaren oraingo fasean, eta, beraz ez dira murriztu behar lanpostuak sortzeko behar diren ahaleginak eta neurriak. Hori dela eta, neurri honen bidez berreskuratu nahi da EAEko hiru lurralde historikotako eta lurralde erkideko araudian jasota dagoen pizgarri fiskal bat, zeina aplikatzekoa zaien enplegu-emaleei pertsonen kontratatze mugagabea sustatzeko xedez, bereziki desgaitasuna duten pertsonen kontratazioa.

Kenkarien atalekin amaitzeko, hogeita hirugarren xedapen gehigarriak jasotzen du Navarra Sumak beste batzuetan ere aurkeztu izan duen kenkari bat. Hain zuzen, 40.000 eurotik gorako urteko lansari gordinak dituzten langileentzako enpleguko pentsio planei enpresak eginiko ekarpenengatikoen kenkaria.

116. artikuluaekin, –Bat-egiteak, zatiketak, aktiboaren ekarpenak eta baloreen trukaketak eta europar sozietate batek edo europar sozietate kooperatibo batek helbide soziala Europar Batasuneko kide den estatu batetik beste batera aldatzea kapituluaren barruan–, kendu nahi da 2. apartatua aurreikusitako baldintza, zeinaren bidez exigitzen baita desegiten den entitateko bazkideei baloreak desegiten den sozietatean zuten proportzio ezberdinean emateko, beharrezkoa izanen dela haiek eskuratutako ondareak jardura-adarak izatea. Eskakizun hori kentzearen helburua

da Europako Batzordeak Espainiako Erresumari 2020ko martxoan igorritako irizpen arrazoituan zetorren eskaria betetzea, bertan eskatzen baitzen Espainiako arauditik kentzea hori bezalako baldintzak, desegokiro murrizten dutelako atzeratze fiskalaren araubidea aplikatzea zatiketa-eragiketetan, xede dutenean bermatzea enpresen berrantolaketak, fusioetan edo zatiketetan esate baterako, zerga arloko arazoengatik oztoporik ez aurkitzea berregituratzeko unean.

Ilido horretatik, atzeratze fiskala ez emateko exigentzia, zatikatutako sozietateko akziodunek zatiketaren ondoriozko sozietate guztietan akzioen proportzio bera jasotzen ez dutenean salbu eta eskuratutako aktiboak jardueraren adarrak badira, Europar Batasuneko ordenamenduaren aurkako neurri murriztailea da.

132.bis artikulua berriaren bidez Oraingo aukera emanen lieke ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektuen finantzaketan parte hartzeko ikerketaren jarduera salbuetsita duten entitateei, eta, beraz, beste entitate batzuek baino egoera txarragoan daude.

Ekintzaitzari laguntzeko neurriak hirugarren xedapen gehigarrian arautzen dira. Navarra Sumak fiskalitatearen gaineko eztabaidetan azaldu ditu neurri horiek, zuzenketa partzialen bidez, baina gainerako indar politikoek ezezko botoa eman dute. Hala ere, neurri fiskalei buruzko lege proiektuak jaso egiten ditu aldaketa batzuekin, baina oraindik urriak jarduera mota hori benetan bultzatu ahal izateko. Ordezko testuan proposatzen den idazketak % 70erainoko kenkariak biltzen ditu PFEZean zein Sozietateen gaineko Zergan, jarduerako lehen bi urteetarako, eta kenkaria handiagoak ere entitate ekintzaileetan inbertitzen duten pertsona edo entitateetarako.

Oinordetza eta dohaintzen gaineko kapituluan, salbuetsitako tartea 400.000 eurora igo da, oinarriaren gainerako zatirako % 0,8 aplikatuta.

Halaber, 11. artikulua muga bat ezartzen du familia-enpresan partaidetzak «mortis causa» eskuratzeari lotutako salbuespenari, halako partaidetzak ondarearen gaineko zergatik salbuesteari dagokionez ezarritako mugarekin bat etorrira.

Gainera, 12 artikulua idazketa berriak muga bat ezartzen du familia-enpresan partaidetzak «inter vivos» kosturik gabe eskuratzeari lotutako salbuespenari, halako partaidetzak ondarearen gaineko zergatik salbuesteari dagokionez ezarritako mugarekin bat etorrira.

Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 4. eta 5. artikuluen aldaketen asmoa da orainaldiko eraginkortasuna duten oinordetza-itunak oinordetza-titulutzat hartzea oinordetza eta dohaintzen gaineko zergan, PFEZean egin nahi den bezala.

Kostu bidezko ondare eskualdaketen eta egin-tza juridiko dokumentatuen gaineko zergari dagokionez, 4. artikulua berria proposatzen da Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 25. artikuluan proposatzen den aldaketarekin bat.

Azkenik, 8. artikulua Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuan jasotako neurri bat gehitzen du, zeinak etxebizitza erosteari lotutako tributu karga minoratzen baitu, helburu berezia izanik ohiko etxebizitzarako erabiliko diren higiezinaren erosketara sustatzea despopulazio-arriskuan dauden udalerrietan. Ordezko testuan proposatzen den idazketaren bidez garajeak ere sartzen dira.

Lehen artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren manu hauek (testu bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen) testu hau izanen dute:

Bat. 7.a) artikuluko lehen paragrafoa aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

«a) Gizarte Segurantzak, edo horren ordezko entitateek, ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia dela-eta subjektu pasiboari onartutako prestazioak, baita 55 urtetik gorako zergadunek ezintasun iraunkor osoa dela-eta jasotako prestazioak ere. Ezintasun iraunkor osaren kasuan, salbuespena ez zaie aplikatuko Foru Lege honen 14.2 artikuluan ezarrita ez dauden lan-etekinak edo jarduera ekonomikoen ondoriozko lan-etekinak jasotzen dituzten zergadunei. Bateriaezintasun hori ez da aplikatuko prestazioa lehen aldiz jasotzen den zergaldian».

Bi. 7. c) artikulua aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

«c) Langilea kaleratzeagatik edo lana uzteagatik ematen diren kalte-ordainak, Langileen Estatu-tuan edo hori garatzeko araudian, edo kasua bada, epaiak betearazteko araudian nahitaezko izaeraz ezarritako kopuruetan; hitzarmen, itun edo kontratuaren indarrez finkatutakoa ezin izanen da, ordea, derrigorrezko izaeraz ezarritako kalte-ordaintzat hartu.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa alde batera utzi gabe, kaleratze kolektiboak Langileen Estatutuaren 51. artikuluan ezarritakoarekin bat egiten badira edo aipatu estatutuaren 52.c.) artikuluan aurreikusitako arrazoen ondorio badira, eta betiere bi kasuetan kausa ekonomikoak, teknikoak, antolakuntzakoak, produkziokoak edo ezinbesteko kausak direla medio, aipatutako Estatutuan bidegabeko kaleratzeagatik derrigorrezko izaeraz ezarritako mugak gainditzen ez dituen kalte-ordainaren zatia salbuetsiko da.

Ez dira hitzarmen, itun edo kontratuaren indarrez finkatutako kalte-ordaintzat hartuko adosten direnak administrazio zerbitzuan egiten den adiskidetze ekitaldian, Lan arloko jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legearen 63. artikuluan zehaztutakoan. Letra honetan aipatutako kalte-ordain salbuetsia 180.000 eurokoa izanen da, gehienez ere.

Baldin eta kaleratzearen kalte-ordaina guztiz edo hein batean ordaintzen bada kaleratutako langileak lan egiten zuen entitatetik heldu diren ondare elementuak emanez, ondare elementu horiek merkatuan duten balioa salbuetsita egonen da, betiere honako baldintzak betez gero:

1. Subjektu pasiboak ondare elementu horiek jartzea jarduera ekonomiko bat langile autonomo gisa egiteko edo lan elkartuko kooperatiba bateko nahiz lan sozietate bateko bazkide-langile gisa jarduteko.

2. Subjektu pasiboak langile autonomo gisa jardutea edo bazkide-langile gisa aritzea gutxienez ere bost urtez.

Hirugarrena. Subjektu pasiboak langabezia-prestazioa ordainketa bakarreko modalitatean jasotzea, hain zuzen ere 1044/1985 Errege Dekretuan arautu bezala.

Laugarrena. Gauzazko kalte-ordainaren zenbateko salbuetsia ezin izanen da izan 180.000 eurori letra honetako lehenengo bi paragrafoen arabera salbuetsita dagoen diruzko kalte-ordainaren zenbatekoa kenduta ateratzen den kendura baino handiagoa”.

Hiru. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 7.k) artikulua aldatzea eta 68 quater artikulua indargabetzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“k) Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren II. tituluaren VI. eta VII. kapituluetan eta VI. tituluaren I. kapituluaren araututa dauden familia prestazioak,

bai eta administrazio publikoetako langileentzat, hala jardunekoentzat nola pasiboentzat, seme edo alaba desgaitu bakoitzarengatik ezarritako familia laguntza.

Era berean, umezurtzei dagozkien pentsio eta sarrera pasiboak eta hogeita bi urtetik beherakoak diren edo lan guztietarako ezinduak dauden biloben edo anai-arreben aldekoak, Gizarte Segurantzaren eta klase pasiboen araubide publikoetatik jasoak, eta, halaber, zurtasunarengatik jasotzen diren gainerako prestazio publikoak.

Modu berean, salbuetsiak egonen dira Gizarte Segurantzako araubide berezi aipatuaren alternatiba gisa diharduten gizarte-aurreikuspenarako mutualitateek norbere konturako langile edo autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berezian txertatu gabe dauden profesionalei aitorturiko prestazioak, baldin eta prestazio horiek badira aurreko bi paragrafoek aipatu den araubide berezian txertatuta dauden profesionalentzat Gizarte Segurantzak aurreikusitakotzat jasotzen dituzten egoera berberetarako prestazioak. Hauxe izanen da salbuetsitako kopuruaren muga: Gizarte Segurantzak kasuko kontzeptuarengatik aitortzen duen gehieneko prestazioaren zenbatekoa. Gehiegizko kopuruak lan-etekinek ordaintzen dituzten zergak ordaintzen dituzte eta aldi berean jasoz gero Gizarte Segurantzako prestazioak eta arestian aipatu mutualitateenak, ulertuko da azken horiek ordaindutakoei dagozkiela.

Salbuetsiak egonen dira, halaber, Gizarte zerbitzuen arloan banakoentzako eta familientzako prestazioak eta laguntzak arautzen dituen ekainaren 28ko 168/1990 Foru Dekretuan ezarritako prestazio ekonomikoak, bai eta Gizarteratzeko eta errenta bermaturako eskubideak arautzen dituen Foru Legean ezarritako errenta bermatua eta abenduaren 20ko 19/2021 Legean araututako bizitzeko gutxieneko errenta ere. Era berean, salbuetsiak egonen dira jaiotzagatik, adopzioagatik, seme-alabak norberaren kargura edukitzeagatik, adingabeak harreran hartzeagatik, zurtasunagatik, haur batez baino gehiagoz erditzeagatik edo beste horrenbeste adoptatzeagatik edo minbiziak edo beste edozein gaixotasun larrik jotako seme-alaba adingabeak zaintzeagatik emandako gainerako prestazio publikoak, bai eta jaiotza-tasa sustatze aldera eta langileen lana eta familiako bizitza ongi uztartzeko neurri osagarri gisa kasuan kasuko deialdien bidez familiaren arloan emandako laguntzak ere”.

Lau. 7.z) artikulua aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“z) Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzarekin (LGENF) batera finantzaturako Nafarroako landa garapenerako programako laguntzen 100eko 100.

Era berean, salbuesia egonen da Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtzak (NBEUF) osorik finantzaturako laguntzen 100eko 60, horiek jaso badituzte ogibide nagusia nekazaritza duten nekazariak, Nafarroako Nekazaritzako Ustiategiaren Erregistroari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 2ko 150/2002 Legegintzako Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Salbuespenak barne hartuko ditu NBEUF-Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtzak osorik finantzaturako laguntzen 100eko 65, nekazaritza-ustialekueetan titulartasun partekatua daukatenek jaso dituztenak, martxoaren 6ko 297/2009 Errege Dekretuak ezarritakoari jarraikiz.

Bi kontzeptuengatik jasotako laguntzei dagokien salbuespenaren gehieneko zenbateko bateratua ezin izanen da izan 20.000 euro baino gehiagokoa”.

Bost. 15.2 artikuluarik c) letra gehitzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“c) urrutiko lana edo telelana egiteko beharrezkoak diren bitartekoak, ekipoak eta erremintak entregatzea edo erabiltzeko lagatzea, zergadun bakoitzeko urteko 2.000 euroko mugarekin, softwarea eta lotutako periferikoak barne.

Lotutako periferikotzat hartuko dira, besteak beste, monitoreak, teklatuak, saguak, bozgorailuak, inprimagailuak, webcamak, mikrofonoak, aurikularrak eta USB memoriak”.

Sei. 15.3 artikuluarik g) letra gehitzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“g) Sozietateek beren akzio edo partaidetzak, edo Merkataritza Kodearen 42. artikuluarik ildotik taldea osatzen duen edozein sozietateren akzio edo partaidetzak, jarduneko langileei doan edo merkatuko prezio normala baino merkeago ematea, baldin eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarriaren 4. apartatuan jasotako enpresetako langileei aurretiaz emandako akzioen edo partaidetzen gaineko erosteko aukera baliatzearen ondorio bada, eta langile bakoitzari guztira emandakoaren zenbatekoa ez bada 50.000 eurotik gorakoa urtean”.

Zazpi. 17.2.b) artikulua aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“b) Ehuneko 40, foru lege honen 14.2.a) artikuluko prestazioak kapital gisa jasotzen badira, betiere bi urte iragan badira lehen ekarpenetik”.

Zortzi. 18.1. artikuluarik d) letra gehitzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“d) Behar bezala egiaztaturik dagoenean, foru lege honen 62.9 artikuluarik c) letran aipaturako pertsonak zaintzeko familiaren etxean lan egiten duten pertsonekin formalizatutako kontratuen ondoriozko ordainsariak direla eta, subjektu pasiboak zergaldian ordaindutako kopuruak. Lan egiten duen pertsonak lan-kontratu izan behar du eta Gizarte Segurantzako dagokien araubidean afiliatuta egon behar du. Muga lanbide arteko gutxieneko soldata izanen da”.

Bederatzi. 25. artikuluarik 2. idatz-zatia aldatzen da. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“2. Aurreko apartatuan xedaturakoaren arabera kalkulaturako etekin garbi positiboa honela murriztuko da:

100eko 40, etxebizitza-erabilerarako higiezinaren errentamendutik heltzen denean. Portzentaje hori 100eko 50ekoa izanen da, toki administrazio eta despoblazioaren alorrean eskudun den departamentuko kontseilariaren foru agindu bidez despoblazio-arriskukotzat sailkatutako udalerrietakoren batean kokatuta dagoenean etxebizitza.

100eko 60, etxebizitzatarako erabiltzen diren etxebizitzaren errentamendutik ateratzen denean, errentamendu hori arau hauetan jasotako sozietate publiko instrumentalaren bitartez egina bada: Nafarroan Etxebizitza izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 13. artikulua, eta Etxebizitzaren arloko jarduketak babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren 77. artikulua.

100eko 40, errentamenduaren xede den etxebizitzaren urteko alokairuaren zenbatekoa AJI-Alokairu Jasangarritasunaren Indizearen balioa baino handiagoa ez bada, eta kontratua behar bezala erregistratu bada Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroan, Nafarroan Etxebizitza izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 90. artikuluan xedaturakoan.

Subjektu pasiboak aitortutako etekineta soil-soilik aplikatuko da murriztapena.

Hamar. 31. artikulua aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Ez da higikorren kapitalaren etekintzat hartuko subjektu pasiboak bere ohiko lanbide edo enpresa-jarduera garatzean burututako eragiketen prezioaren gerorapenagatik edo zatikapenagatik lortutako kontraprestazioa, ezertan galarazi gabe dagokion kontzeptuaren arabera zergapetzea.

Subjektu pasiboa hil dela-eta kosturik gabe eskualdatzen badira foru lege honen 29. artikuluan aipatutako besteren kapitalak hartu eta erabiltzea adierazten duten aktiboak, kapital higigarriaren etekinik ez dagoela iritziko da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa orobat aplikatuko da kostu gabeko eskualdaketa orainaldiko eraginkortasuna duen edozein oinordetza-tituluren bidez egiten denean. Horri dagokionez, oinordetza-titulutzat joko dira urtarrilaren 26ko 16/2004 Foru Dekretuak onetsitako Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Erregelamenduaren 4. artikuluan adierazitakoak.

Orainaldiko eraginkortasuna duten oinordetza-tituluen bidez kosturik gabe egiten diren eskualdaketatik, aurreko paragrafoan aipatutako horietan, eskuratze-baliotzat hartuko da, besteren kapitalak hartu eta erabiltzea adierazten duten aktiboaren eskuratailearentzat, etorkizuneko eskualdaketei begira, dohaintza-emaileak dohaintza-hartzaileari ematen dizkion unean aktiboa duten balioa, salbu eta dohaintza-emailea hil baino lehen dohaintza-hartzaileak aktibo horiek eskualdatzen dituztenean; kasu horretan dohaintza-hartzaileak dohaintza-emailearen lekuan subrogatuko da aktibo horien eskurataile baliokidei eta -datei dagokienez, eta orainaldiko eraginkortasuna duen oinordetza-itunaren aurretik dohaintza-emaileak zituen balio eta datuei eutsiko die.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa berdin aplikatuko da aktiboak dohaintza-emailea hil aurretik itzultzen, amortizatzen, trukutzen edo bihurtzen direnean ere”.

Hamaika. 34.6 artikuluar b) letra gehitzea, halako moldez non egungo edukia a) letra izatera pasako baita. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“b) Basogintza jardueren kasuan, a) letren eza-eritako murriztapen ehuneko honako hau izanen da:

1) 100eko 45, mozketa aldia 15 urtekoa edo gehiagokoa eta 35 urtekoa edo gutxiagokoa bada.

2) 100eko 55, mozketa aldia 35 urte baino gehiagokoa bada”.

Hamabi. 35.1.2 artikuluar amaieran beste paragrafo bat gehitzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Halaber, behar bezala egiaztaturik dagoenean, foru lege honen 62.9 artikuluar c) letren aipatutako pertsonak zaintzeko familiaren etxean lan egiten duten pertsonekin formalizatutako kontratuen ondoriozko ordainsariak direla-eta, subjektu pasiboak zergaldian ordaindutako kopuruak kenduko dira etekin garbia zehazteko. Lan egiten duen pertsonak lan-kontratuak izan behar du eta Gizarte Segurantzako dagokion araubidean afiliatuta egon behar du. Muga lanbide arteko gutxieneko soldata izanen da”.

Hamahiru. 36.A artikuluar 3. apartatua aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“3. A).2 apartatuan xedatutakoaren arabera kalkulaturiko etekin garbi positibotik haren 100eko 10 kenduko da”.

Hamalau. 36.A) artikuluar 4. apartatua gehitzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“4. Jarduera ekonomikoak kokatuta daudenean toki administrazio eta despopulazioaren alorrean eskudun den departamentuko kontseilariaren foru agindu bidez despopulazio-arriskukotzat sailkatutako udalerririk batean, aurreko apartatuak adierazten duen portzentajea 100eko 20koa izanen da.

Aurreko apartatuan xedatua kokaleku fisiko iraunkorra udalerririk horietan daukaten jarduera ekonomiko bakoari aplikatuko zaie, modu presentzialean eta bezero edo erabiltzaileekiko zuzeneko harremanean egiten direnean, aipatu udalerririk”.

Hamabost. 36.B artikuluko 1. apartatuko b) letra aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“b) Baliokidetasun-errekarguaren araubide berezia edo balio erantsiaren zergaren araubide berezi erraztua aplikatzen zaizkien enpresa-jarduerak egiten dituzten subjektu pasiboak, haien negozio-zifraren zenbateko garbia ez bada aurreaurreko urtean 250.000 euro baino handiagoa izan”.

Hamasei. 36.B artikuluko 3. apartatuko a) letra aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“a) Ez dira kengarriak izanen ekarpenak eta narriaduragatik galerak”.

Hamazazpi. 36.B artikuluko 4. apartatuko a), b) eta c) letrak aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“a) Oro har, etekinaren 100eko 15.

Jarduera ekonomikoak kokatuta daudenean toki administrazio eta despopulazioaren alorrean eskudun den departamentuko kontseilariaren foru agindu bidez despopulazio-arriskukotzat sailkatutako udalerrri batean, 100eko 25ekoa izanen da.

“b) Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza edo arrantzako jarduerak badira, etekinaren % 45.

c) Salgaien errepide-garraioko jarduerak badira, etekinaren 100eko 55. Ondorio horietarako, salgaien errepide-garraiokat hartuko dira maiztaren 28ko 7/1996 Foru Legearen bidez onetsi ziren ekonomia-jardueren gaineko zergaren tarifen 722. epigrafean ageri direnak”.

Hemezortzi. 39.4 artikuluko b) letra aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“b) Zergaduna hil dela-eta kosturik gabe egiten diren eskualdaketetan, baita kostu gabeko eskualdaketa orainaldiko eraginkortasuna duen oinordetza-tituluren baten bidez egiten denean ere.

Horri dagokionez, oinordetza-tituluak dira urtarrilaren 26ko 16/2004 Foru Dekretuak onetsitako Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Erregelamenduak 4. artikuluan adierazitakoak”.

Hemeretzi. 39.4. artikuluko c) letraren bukaran paragrafo bat gehitzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Aurreko c) letran jasotakoa gorabehera, akzioak eta partaidetzak eskualdatzen direnean, ulertuko da ondare-gehikuntza edo -murrizketarik dagoela jarduera ekonomikorako beharrezkoak ez diren aktiboen balioaren –jardueraren ondorio ez diren zorren zenbatekoa kenduta– eta entitatearen ondare garbiaren balioaren artean dagoen proportzioari dagokion zatian, eta, hala badagokio, erregela hauek aplikatuko dira partaidetzako entitateen akzioen eta partaidetzen ebaluazioan haren entitate edukitzailearen akzio eta partaidetzen balioa zehazteko. Aktibo bat jarduera ekonomiko bat garatzeko beharrezkoa den ala ez zehazteko, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 5.8.Hiru artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

Hogei. 41. artikuluar 4. apartatua gehitzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“4. Artikulu honen 1. apartatuak aipatzen duen eskurapen-balioa eguneratu egingen da, horretarako aplikatuz foru lege honen hirurogeita seigarren xedapen gehiagarrian aurreikusitako koefizienteak, aintzat harturik, nagusiki, kontsumorako prezioen indizeak nolako bilakaera izan duen ondare-elementuak eskuratu ziren egunetik, eta horien eskualdaketaren ekitaldirako nolako kalkulatu den. Honela aplikatuko dira koefizienteak:

a) Artikulu honen 1. apartatuko a) eta b) letrak aipatzen dituzten zenbatekoen gainean, aintzat harturik zer urtetan ordaindu diren.

b) Amortizazioen gainean, aintzat harturik zer urteri dagozkion”.

Hogeita bat. 42. artikulua aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

Eskurapena edo eskualdaketa irabazizkoa izan denean, kasuan kasuko balioak izanen dira oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren arauen aplikaziotik eratorriko lirakeenak. Merkaturako balioa ezin dute gaititu.

Hala ere, orainaldi-efektudun kontratu edo oinordetza-itunetatik eratorriak diren heriotzagatik irabazizko eskurapenetan, horien onuradunak ondasun eskuratuak eskualdatzen baditu oinordetza-ituna egin edo kausatzailea hil zenetik (lehenago gertatu bada) bost urte iragan aurretik, kausatzailearen posizioan subrogatuko da ondasunen eskurapen-balioari eta -datari dagokienez, balio hori aurreko paragrafoan aurreikusitakoa baino txikiagoa izanez gero.

Balio horiei, kasua bada, 41. artikuluko 1.b), 2. eta 4. apartatuetan xedatutakoa aplikatuko zaie.

39.4.c) artikuluan aipatzen diren irabazizko eskurapenetan, dohaintza-hartzailea dohaintza-emailearen posizioan subrogatuko da ondasun horien eskurapen-balioei eta -datei dagokienez.

Hogeita bi. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginari 52.ter artikulua gehitzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“52. ter artikulua. Lekualdatutako langileen-tzako araubide fiskal berezia.

1. Espainiako lurraldera aldatzearen ondorioz Nafarroan egoitza fiskala hartzen duten pertsona fisikoek aukera izanen dute artikulu honetan ezarritako araubide bereziarekin tributatzeko, egoitza aldatzen duten zergaldian eta hurrengo hamar

zergaldietan, honako baldintza hauek betetzen badira, erregelamenduz ezartzen diren zertzeladekin eta betekizunekin:

a) Espainiako lurraldera lekualdatu izatea bereziki kualifikatutako lanetan aritzeko, hots, zuzenean eta nagusiki lotuta daudenetan ikerketa eta garapeneko jarduerekin edo zientzia, antolaketa, kudeaketa, teknika, finantza edo merkataritza jarduerekin; edota unibertsitateko ospe handiko irakasleak izatea.

Artikulu honen ondorioetarako, ikerketa eta garapeneko jarduerak dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 61. artikuluan halakotzat jotzen direnak.

b) Espainiako lurraldera lekualdatu aurreko bost urteetan ez izatea Espainiako zerga egoiliar.

c) Lekualdaketa hori laneko kontratu baten ondorioz gertatzea. Baldintza hori betetzat joko da lan harremana (arrunta edo berezia) edo estatutu baten arabera Espainian hasten denean enplegu emaile batekin, edo horrek aginduta eta agiri bat emanda egiten denean lekualdaketa, eta subjektu pasiboak Espainiako lurraldean den establezimendu iraunkor baten bidez lortutakotzat joko liratekeen errentak eskuratzen ez dituenen.

d) Lanak benetan Espainian egitea. Baldintza hori betetzat joko da, nahiz eta lanen zati bat atzerrian burutu, baldin eta lan horiei dagozkien ordainsariak ez badira urte naturalean lanaren ordaintan jasotakoaren 100eko 15 baino gehiago, lan horiek Espainiako lurraldean lortutako errentatzat hartu edo ez, Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko Legearen Testu Bateginaren 13.1.c) artikulua arabera. Lan kontratuan ezarritakoaren ondorioz, subjektu pasiboak taldeko beste enpresa bateko eginkizunak bere gain hartzen dituenen Espainiako lurraldetik kanpo, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako moduan, aurreko muga 100eko 30era igoko da.

Atzerrian egindako lanei dagozkien berariazko ordainsarien zenbatekoa ezin frogatu denean, langileak atzerrian benetan emandako egunak hartuko dira kontuan lan horiei dagokien ordainsaria kalkulatzeko.

e) Lan horiek Espainiako egoiliarra den enpresa edo entitate batentzat egitea, edo Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitate batek Espainian duen establezimendu iraunkor batentzat. Baldintza hori betetzat joko da zerbitzuak Espainiako egoiliarra den enpresa edo entitate baten onerako direnean, edo Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitate batek Espainian duen establezimendu iraunkor baten onerako. Lekualdaketa

enpresa-talde baten barnean egiten bada, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako moduan, eta ondorio horietarako bakarrik, beharrezkoa izanen da Espainiako egoiliarra den taldeko enpresak kontratatzea langilea edo enplegu emaileak aginduta lekualdatzea Espainiako lurraldera.

2. Artikulu honetan ezarritako tributazio araubidea hautatzen duten zergadunek foru lege honetan ezarritakoaren arabera zehaztuko dute zergazorra, honako berezitasun hauekin:

a) Aurreko 1. apartatuan definitzen den lanharremanetik heldu diren etekin osoen ehuneko 30 salbuetsita egonen dira.

b) Aurreko letran aipatutako salbuespena aplikatu ondoren, norberaren lanaren etekin garbia zehazteko, gastu kengarritzat joko dira, foru lege honen 18. artikuluan adierazitakoak ez ezik, legkeualdaketa onerako sortzen diren gainerakoak ere, aipatutako lanpostuan aritzean lortutako etekin osoen ehuneko 20ko mugaraino.

Gastu horiek erregelamenduz zehaztuko dira, eta horiek aplikatzeko baldintza izanen da, betiere, gastu horiek dokumentu bidez frogatzea.

Pertsona enplegatzaileak b) letra honetan aipatzen diren gastu erantsiei aurre egiteko diru kopuruak ordaintzen baditu, diru kopuru horiek ez dira gauzako ordainsaritzat hartuko, aipatutako lanpostuan arituz lortutako etekin osoen ehuneko 20ko mugaraino.

c) Salbuetsita egonen dira zergadunaren titulartasuneko ondare-elementuetatik lortutako errentak, atzerrian kokatuak; betiere, errenta horiek benetan tributatu badute honen berdina edo parekoa den beste zergaren baten kargapean, eta atzerriko herrialde edo lurralde hori paradisu fiskaltzat edo tributaziorik gabekotzat jotzen ez bada, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren hogeita hamaseigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

Letra honetan aurreikusitako salbuespena aplikatzen duten zergadunek ez dute eskubiderik izanen foru lege honen 67. artikuluan errenta beretarako aurreikusten den kenkaria aplikatzeko.

3. Goragoko 1. apartatuan aipatzen den subjektu pasiboaren ezkontideak edo bikotekide egonkorak ere aukeratzen ahalko du artikulu honetan ezarritako araubide fiskal bereziaren bidez zergapetua izatea, honako baldintza hauek betetzen baditu:

a) Espainiako lurraldera lekualdatzea 1. apartatuan aipatutako subjektu pasiboarekin batera edo geroago, baina betiere horri araubide berezia aplikatzekoa zaion lehen zergaldia amaitu aurretik.

b) Egoitza fiskala Nafarroan eskuratzea, Espainiako lurraldera lekualdatzearen ondorioz.

c) Espainiako lurraldera lekualdatu aurreko bost urteetan ez izatea Espainiako zerga egoiliar.

d) Araubide berezi hau aplikatzekoa den zergaldi bakoitzean errenta bakoitzari dagozkion zerga-oinarrien batura txikiagoa izatea zergaldi berean 1. apartatuan aipatutako subjektu pasiboari dagozkion zerga-oinarrien batura baino.

Araubide berezia aplikatuko da betekizun horiek betetzen diren ondoz ondoko zergaldietan,

1. apartatuan aurreikusitako subjektu pasiboari ere aplikatzen zaionean.

4. Xedapen honetan aurreikusitako araubidea ez zaie aplikatuko Espainiako lurraldera lekualdatu direlako egoitza fiskala Nafarroan eskuratzen duten langileei, baldin eta aurreko 10 urteetan atzerrira lekualdatu baditu entitate enplegatzaileak edo egoitza Espainian duten eta enpresa-taldea Merkataritza Kodearen 42. artikulua ezartzen duenaren arabera osatzen duten sozietateetako edozeinek”.

Hogeita hiru. 59.1 artikulua aldatzea. 2023ko utarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“1. Likidazio-oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

LIKIDAZIO- OINARRIA, ZENBATERAINO (eurotan)	KUOTA OSOA (eurotan)	OINARRIAREN GAINERAKOA, ZENBATERAINO (eurotan)	APLIKATZEKO DEN TASA (ehunekoa)
		4.516	13
4.516	587,08	5.597	22
10.113	1.818,42	11.138	25
21.251	4.602,92	14.373	28
35.624	8.627,36	15.105	36,5
50.729	14.140,69	11.696	41,5
62.425	18.994,53	20.808	44
83.233	28.150,05	46.818	47
130.051	50.154,51	52.020	49
182.071	75.644,31	130.050	50,5
312.121	141.319,56	Oinarriaren soberakina	52

Hogeita lau. 60. artikulua aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziari honako eskala honetan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan)	Tasa (ehunekoak)
-	-	6.000	19
6.000	1.140	44.000	21
50.000	10.380	150.000	23
200.000	44.880	Gainerakoak	26

Hogeita bost. 62.2 artikulua aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“2. Etxebizitzaren alokaruagatikoko kenkaria:

a) Subjektu pasiboak zergaldian bere ohiko etxebizitzaren alokairua ordaintzen badu, zergaldian ordaindutako diru kopuruen % 20ko kenkaria aplikatu ahalko du; gehienez ere 2.000 euroko kenkaria urtean.

b) Aurreko a) letran ezarritakoa gorabehera, honako kenkari berezi hauek ezartzen dira:

i) Familia ugariaren titular diren zergadunen kasuan, aurreko a) letrak aurreikusten duen kenkaria 100eko 25ekoa izanen da, kenkari-muga 2.200 eurokoa duela.

ii) Hogeita hamabost urte baino gutxiago dituzten edo familia ugari baten titularrak diren zergadunentzat aurreko paragrafoan aipatutako kenkaria % 25ekoa izanen da, eta urtean 2.200 eurokoa gehienez ere.

iii) Zergadunek beren ohiko etxebizitza kokatuta dutenean toki administrazio eta despopulazioaren alorrean eskudun den departamentuko kontseilariaren foru agindu bidez despopulazio-arriskukotzat sailkaturiko udalerritatean, aurreko a) letrak aurreikusten duen kenkaria 100eko 30ekoa izanen da, hileroko kenkari-muga 2.400 eurokoa duela.

c) Apartatu honek araututako kenkaria aplikatzeko, ordaindutako kopuruetatik kenduko da zergadunak etxebizitzaren errentamendurako jasotako dirulaguntzen zenbatekoa, halakorik jaso den kasuetan, zerga honi buruzko araudia aplikatuta salbuetsita dauden heinean.

d) Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, zergadunaren adina edo familia ugariaren titulartasuna zehazteko, zerga sortzen den egunean duen egoerari erreparatuko zaio.

Aurreko b) letrako iii) apartatuak xedatzen duena aplikatzeko, beharrezkoa izanen da, errentariaren heriotzaren kasuetan izan ezik, errentariak zergaldi osoan zehar bere egoitza edukitzea toki administrazio eta despopulazioaren alorrean eskudun den departamentuko kontseilariaren foru agindu bidez despopulazio-arriskukotzat sailkaturiko udalerrian.

e) Baterako tributazioa aukeratzen bada eta kenkaria aplikatzeko eskubidea duen pertsona bat baino gehiago badago, eta batzuk 30 urtetik beherakoak badira eta beste batzuk hortik gorakoak, aurreko b) letraren ii) apartatuan ezarritako ehuneko eta muga aplikatuko dira.

f) Erabaki judizialaren bidez zergadunari familia-etxebizitzaren errenta osoa ordaintzeko betebeharra ezarri bazaio, zergadunak eskubidea izanen du artikulua honetan aipatutako kenkaria baliatzeko bere autolikidazioan. Betebehar hori bi zergadunei badagokie, kenkaria bien artean hainbanatuko da eta bakoitzaren autolikidazioan aplikatuko da egoki den proportzioan, apartatu honetako a) letran ezarritako ehunekoarekin eta mugarekin, salbu eta aurreko b) letran ezarritako betekizunak betetzen dituztenean, zeren eta kasu horretan eskubidea izanen baitute letra horretan adierazitako ehuneko eta muga aplikatzeko”.

Hogeita sei. 62.5.1 artikulua aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“1. Lan etekinak lortzen dituzten subjektu pasiboek diru-kopuru hauek kentzen ahalko dituzte:

a) 10.500 euroko edo hortik beherako laneko etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak:

1.512 euro.

b) Lan-etekin garbiak 10.500,01 eta 17.500 euro bitartekoak dituzten subjektu pasiboak: 1.512 euro ken eragiketa honen emaitza: etekin garbi horien zenbatekoa ken 10.500 euro, eta horren emaitza bider 0,108.

c) Lan-etekin garbiak 17.500,01 eta 35.000 euro bitartekoak dituzten subjektu pasiboak:

756 euro

d) Lan-etekin garbiak 35.000,01 eta 50.000 euro bitartekoak dituzten subjektu pasiboak:

756 euro ken eragiketa honen emaitza: etekin garbi horien zenbatekoa ken 35.000 euro, eta horren emaitza bider 0,0238.

e) 50.000 eurotik gorako lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 400 euro.

Apartatu honen ondorioetarako soilik, lan-etekin garbiak kalkulatu dira lan-etekin guztiak batuz, salbuetsiak barne.”

Hogeita zazpi.

62.9 artikulua aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“9. Kenkari pertsonal eta familiakoak:

a) Gutxieneko pertsonalarengatik.

Oro har, gutxieneko pertsonalarengatik kenkaria subjektu pasibo bakoitzeko 1.052 eurokoa izanen da urtean. Zenbateko hori honako hauek gehituko zaizkio: a') 255 euro, hirurogeita bost urte edo gehiagoko adina duten subjektu pasiboentzat. Zenbateko hori 573 eurokoa izanen da subjektu pasiboak hirurogeita hamabost urte edo gehiagoko adina baldin badu.

b') 744 euro, desgaitasuna duten subjektu pasiboentzat, frogatzen badute ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa eta ehuneko 65ekoa baino txikiagoa dutela. Zenbateko hori 2.784 eurokoa izanen da subjektu pasiboak frogatzen duenean ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasuna duela.

c') 103 euro, zergaldian 30.000 euro baino gutxiagoko errentak, salbuetsiak barne, dituzten subjektu pasiboentzat.

b) Gutxieneko familiarrengatik:

Gutxieneko familiarrengatik kenkariak hauek izanen dira:

a') Subjektu pasiboarekin bizirik, urtean ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) baino errenta altuagorik, errenta salbuetsiak kenduta, jasotzen ez duen aurreko ahaide bakoitzeko, zenbateko hauetako bat:

Lehena. 256 euro, aurreko ahaideak hirurogeita bost urte edo gehiagoko adina badu edo, gazteagoa izan arren, apartatu honetako c') letran aurreikusitako kenkariak aplikatzeko eskubidea badu.

Bigarrena. 568 euro, baldin eta aurreko ahaideak hirurogeita hamabost urte edo gehiagoko adina badu.

Baldin aurreko ahaide horiek familia-unitate baten parte badira, letra honetan aurreikusitako errenta-muga izanen da, familia-unitate osorako, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) halako bi.

Subjektu pasiboarekin elkarbizitzan daudela joko da ekonomikoki subjektu horren mendekoak izanik zentro espezializatueta hartuta dauden aurreko ahaideak. b') Lehena) Hogeita hamar urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, baldin eta subjektu pasiboarekin bizi bada eta ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) baino gehiagoko errentarik ez badu urtean jasotzen, salbuetsiak bazter utzirik:

– 469 euro urtean, lehenagatik.

– 497 euro urtean, bigarrenagatik.

– 711 euro urtean, hirugarrenagatik.

– 952 euro urtean, laugarrenagatik.

– 1.079 euro urtean, bosgarrenagatik.

– 1.249 euro seigarrenagatik eta ondokoengatik.

Aurreko zenbateko horiek orobat aplikatuko dira ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, haren adina zein ere den, baldin eta eskubidea ematen badu hurrengo c') letran aurreikusitako kenkariak baliatzeko.

Horrez gain, letra honetan ezarritako kenkariak aplikatzeko eskubidea ematen duen hiru urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide bakoitzeko edo adoptatu bakoitzeko, 625 euro urtean. Zenbateko hori 1.136 eurokoa izanen da urtean, baldin eta, aplikatzekoak diren arau eta hitzarmenen arabera, nazioartekotzat jotzen diren adopzioak badira. Adopzio kasuetan, kasuko kenkaria aplikatuko da Erregistro Zibilean inskribatzen den zergaldian eta hurrengo bietan.

Bigarrena. Zergaldian 30.000 eurotik beherako errentak, salbuetsiak barne, dituzten subjektu pasiboentzat, 1. ordinaletako kenkariaren zenbatekoa, subjektu pasibo bakoitzari dagokiona, honako eskala hau aplikatuzetik suertatzen den zenbatekoan handituko da:

a) 20.000 euro arteko errentak dituzten subjektu pasiboak: ehuneko 40.

b) 20.000,01 eurotik 30.000 euro arteko errentak dituzten subjektu pasiboak: ehuneko 40, ken subjektu pasiboak 20.000 eurotik gora duen errenta-gaindikina azken kopuru horrekiko egiten duen proportzioa 50ekin biderkatzearen emaitza.

Emaitza gisa lortzen den portzentajea bi hamarrentara biribilduta adieraziko da.

Hirugarrena. Subjektu pasiboarekiko elkarbizitzaren parekotzat joko da haren ondorengo ahaideek harekiko duten menpekotasun ekonomikoa, salbu eta aplikatzeko bada 59.3 artikuluan xedatutakoa.

c') Subjektu pasiboarekin bizi den ondorengo ahaide ezkongabe edo aurreko ahaide bakoitzeko, haien adina zein ere den, 654 euro urtean, aurreko letren arabera bidezkoak diren zenbatekoek gain, baldin eta haiek urtean dituzten errentak, salbuetsiak kanpo, ez badira, kasuko zergaldian, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) baino handiagoak, desgaituak badira eta frogatzen badute ehuneko 33 edo gehiagoko eta ehuneko 65 baino gutxiagoko desgaitasun-gradua. Zenbateko hori 2.291 eurokoa izanen da urtean, frogatutako desgaitasun-gradua ehuneko 65 edo gehiagokoa bada.

Aurreko ahaide horiek familia-unitate baten parte badira, aurreko paragrafoan aurreikusitako errenta-muga izanen da ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren (IPREM) halako bi, familia unitate osorako.

Aurreko b') eta c') letretan xedatutakoaren ondorioetarako, ondorengo ahaideekin parekatuko dira aplikatzeko den legedi zibilean ezarritako terminoetan egindako tutoretza, harrera edo ordezkartzako kuradoretza kasuengatik subjektu pasiboarekin lotura duten pertsonak, aurreko edo ondorengo ahaideak ez direnak. Halaber, ondorengo ahaideekin parekatuko dira urtarrilaren 19ko 7/2009 Foru Dekretuaren 50.1 artikuluan ezarritako baldintzak beteta harreraren izan zituztenekin adin-nagusitasunera edo emantzipaziora arte elkarbizitzen jarraitzea libreki adosten duten pertsonak ere. Aipatu foru dekretuaren bidez, Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko

15/2005 Foru Legearen garapen partzialerako Erregelamendua onetsi zen. Egoera hori eskubide sozialen arloko eskumena duen departamentuak egiaztatu beharko du. Ondorengo ahaideekin parekatuko dira, halaber, subjektu pasiboak ebazpen judizial bidez esleiturik zaintza eta jagoletzaren araubidean dituen pertsonak, aurreko egoerez bestelakoetan daudenak.

Baldin bi subjektu pasibok edo gehiagok badute gutxieneko familiarrengatik kenkariak aplikatzeko eskubidea, horien zenbatekoa haien artean hainbanatuko da zati berdinetan, salbu eta b') bigarrena letran ezarritako igoera. Ondorengo ahaideei dagokienez berdin jokatu da zaintza partekatuaren kasuetan.

Nolanahi ere, subjektu pasiboek ahaidetasun gradu desberdina baldin badute aurreko ahaideekin edo ondorengoekin, gutxieneko familiarrengatik kenkaria gradurik hurbilenekoei aplikatuko zaie, non eta horiek ez duten ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) baino gehiagoko errentarik (salbuetsiak alde batera utzita), kasu horretan hurrengo gradukoei aplikatuko baitzaie.

c) Ondorengo ahaideak, aurreko ahaideak, beste ahaide batzuk eta desgaitasuna duten pertsonak zaintzeagatik:

Kengarria izanen da subjektu pasiboak zergaldian ordaindu dituen kopuruen ehuneko 100, kopuru horiek dagozkienean honako pertsonak etxean zaintzeko lanetan diharduten pertsonekin formalizatutako kontratuen ondorioz enplegatailearen kargura suertatzen diren Gizarte Segurantzarako kotizazioei:

a') Hamasei urte baino gutxiagoko ondorengo ahaideak. Ondorio hauetarako, ondorengo ahaideekin parekatuko dira aplikatzeko den legedi zibilean ezarritako moduan egindako tutoretza, harrera edo ordezkatzeko-kuradoretzagatik subjektu pasiboarekin lotura duten hamasei urte baino gutxiagokoak. Ondorengo ahaideekin parekatuko dira, halaber, subjektu pasiboak ebazpen judizial bidez esleiturik zaintza eta jagoletzaren araubidean dituen pertsonak, aurreko egoerez bestelakoetan daudenak.

b') Subjektu pasiboari eskubidea ematen dioten artikulu honetako b) letrako a') edo c') letretan aurreikusitako gutxieneko familiarrengatik kenkaria aplikatzeko, edo hamahirugarren xedapen iragankorrean ezarritako baldintzetan pertsona lagunduaren izaera duten ahaideengatik kenkaria aplikatzeko. c') Aurreko ahaideak, ezkon-ahaidetasunezkoak direnak; anai-arrebak; osaba-izebak. Betiere, artikulu honen b) letrako a') edo c')

letretan aurreko ahaideentzat ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Kenkari hori ere aplikatzen ahalko da subjektu pasiboa bera zaintzeko formalizatutako kontratuen kasuan, hirurogeita bost urte edo gehiago baditu edo ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasuna frogatzen badu”.

Hogeita zortzi. 62.12 artikulua b letra eta d) Lehenengoa.d’) aldatzea eta laugarren apartatua gehitzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“b) Iturri berriztagarrietatik datorren energiatzat joko da iturri ez-fosiletatik datorren energia; hau da, haize-energia, eguzki-energia (termikoa eta fotovoltaikoa), energia geotermikoa, giro-energia, marea-energia, olatu-energia eta bestelako energia ozeanikoak, energia hidraulikoa, eta biomasa-tik, zabortegetatik gasetatik, araztegetatik gasetatik eta biogasetatik datorrena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko abenduaren 11ko 2018/2001 Zuzentarauan definitzen diren moduan.

Bereziki, iturri berriztagarrietatik datorren energiatzat joko da hidrogeno berriztagarria, hots, aurreko paragrafoan aipatutako iturri ez-fosiletatik lortutako hidrogenoa”.

“d) Autokontsumo partekatuko proiektu batean egindako inbertsioa edo energia-komunitate baten inbertsioa bada, kenkariaren ehuneko 5 puntu gehituko da”. Era berean, inbertsio hori egin bada toki administrazio eta despopulazioaren alorrean eskudun den departamentuko kontseilariaren foru agindu bidez despopulazio-arriskukotzat sailkatutako udalerrri batean, kenkariaren ehuneko 10 puntu areagotuko da”

“Laugarrena. Erabilera termikoetarako instalazioetan egiten diren inbertsioen kasuan, gasaren ordezkari hidrogeno berriztagarria erabiltzen bada, kenkariaren ehuneko 15 puntu igoko da gehienez, hidrogeno berriztagarria erabiltzen den heinean”.

Hogeita bederatzia. 62. artikulua 15. apartatua gehitzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“62.15 artikulua. 0-3 urteko haur hezkuntzako ikastetxeetako gastuengatik kenkaria

Hiru urtetik beherako seme-alabak dituzten zergadunek, artikulua honen 9. apartatuko b) letran aurreikusitako gutxieneko familiarrarengatik kenkaria aplikatzeko eskubidea badute eta beren kontura edo besteren kontura jarduera bat egiten badute eta jarduera horren ondorioz Gizarte

Segurantzako edo mutualitateko araubidean alta emanda badaude, hiru urtetik beherako semea edo alaba zaintzeko gastuengatik zergaldian ordaindutako zenbatekoak kendu ahal izanen dituzte, urteko 918 euroko mugarekin.

Seme-alaba adingabeak hiru urte betetzen dituen zergaldian, artikulua honetan aurreikusitako kenkaria aplikatu ahal izanen zaie adin hori bete ondoren egindako gastuei, haur-hezkuntzako bigarren zikloa hasi aurreko hilabetera arte.

Ondorio horietarako, zaintza-gastutzat hartuko dira haurzaindegiei, etxe lagunei eta adingabe horien aurreinskripzioak eta matrikulak baimendutako beste haur-hezkuntzako zentro batzuei ordaindutako zenbatekoak, asistentzia, ordutegi orokor eta zabalduan, eta elikadura, baldin eta hilabete osoko gertatu badira eta gauzako lanaren etentzat hartzen ez badira, lege honen 15. artikulua 2. apartatuko b) letran xedatutako aplikatuz. Halaber, ordaindutako kopuruetatik zergadunak etxebizitza alokatzeko jasotako dirulaguntzen zenbatekoa kenduko da, halakorik jaso den kasuetan.

Abenduaren 31n Familia Ugarietarako buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legearen arabera familia ugariaren edo familia gurasobakarraren titular diren zergadunen kasuan, Nafarroako Foru Komunitatean guraso familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legean ezarritakoaren arabera, artikulua honen lehen paragrafoan aurreikusitako muga 1.080 eurokoa izanen da.

Bi subjektu pasibok edo gehiagok baldin badute kenkaria aplikatzeko eskubidea, zenbatekoa haien artean banatuko da zati berdinetan. Berdin jokatuko da ondorengo ahaideen zaintza partekatutaren kasuetan”.

Hogeita hamar. 62. artikulua 16. apartatua gehitzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“16. Kenkaria, kenkarirako eskubidea ematen duten hiru ondorengo ahaide edo gehiago izateagatik eta familia ugariarengatik zein familia gurasobakarrarengatik.

Abenduaren 31n Familia Ugarietarako buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legearen arabera familia ugariaren edo familia gurasobakarraren titular diren zergadunek, Nafarroako Foru Komunitatean guraso familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legean ezarritakoaren arabera, eskubidea izanen dute 432 euroko kenkaria aplikatzeko.

Familia Ugariet buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legearen arabera kategoriatu bereziko familia ugariaren edo kategoriatu bereziko familia gurasobakarraren titular diren zergadunen kasuan, Nafarroako Foru Komunitatean guraso familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legean ezarritakoaren arabera, kenkaria 648 eurokoa izanen da.

Bi subjektu pasibok edo gehiagok baldin badute kenkaria aplikatzeko eskubidea, zenbatekoa haien artean banatuko da zati berdinetan. Berdin jokatuko da ondorengo ahaideen zaintza partekatutuan kasuetan”.

Hogeita hamaika. 62. artikuluar 17. Apartatu gehitzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“17. Jarduera ekonomiko bat hasteagatik kenkaria.

a) 35 urte baino gutxiagoko adina duten zergadunek lehenbizikoz hasten dutenean jarduera ekonomiko berri bat, bere garapenerako beharrezkoak diren baliabide pertsonal eta materialak dituen, 1.000 euroko kenkaria aplikatu ahalko dute.

Jarduera ekonomiko berria zergadun batek baino gehiagok hasten duenean, aurreko lerroak aipaturiko kenkaria parte berdinetan banatuko da zergadun guztien artean, zein ere den haien adina, baldin aipatu jarduera ekonomiko ohikotasunez, pertsonalki eta zuzenean egiten badute. Kenkariaren banaketa hori egin ondoren, dagoen partean aplikatuko dute 35 urte baino gutxiagoko adineko zergadunek.

b) Jarduera ekonomiko hasten denean toki administrazio eta despopulazioaren alorrean esku-dun den departamentuko kontseilariaren foru agindu bidez despopulazio-arriskukotzat sailkatutako udalerritan, kenkaria 1.000 eurokoa izanen da, zein ere den jarduera ekonomiko berri bat lehenbizikoz hasten duen zergadunaren adina, eta zein ere den jarduera horretan dihardutenen kopurua.

Emakumezkoak izateaz gain aipatu jarduera ekonomikoan ohikotasunez, pertsonalki eta zuzenean jardun eta aurreko paragrafoko betekizunak betetzen dituzten zergadunek zilegi izanen dute 500 euro handitzea aurreko paragrafoak aipaturiko kenkaria.

Aurreko bi paragrafoetan xedatua kokaleku fisiko iraunkorra udalerritan daukaten jarduera ekonomikoetarako bakarrik aplikatuko zaie, modu presentzian eta bezero edo erabiltzaileekiko

zuzeneko harremanean egiten direnean, aipatu udalerrietatik.

c) Jarduera ekonomiko berri bat hasi dela joko ahal izateko, beharrezkoa izanen da errealki eta benetan agertzea jarduera ekonomiko berri bat.

d) 1. paragrafoan aurreikusitako zergadun-adina zehazteko, zergaren sortzapen-eguneko goerari erreparatuko zaio.

e) Aurreko 1. eta 2. apartatuetan adierazitako zenbatekora bitarte kendu gabeko kopurua ondorengo bost urteetan amaitzen diren zergaldietako autolikidazioetan aplikatu ahal izanen da.

f) Artikulu honek aipatzen duen kenkariaren aplikazioa baldintzaturik dago jarduera ekonomiko bi urtez gutxienez egitera eta jarduera ekonomiko urte guztian zehar egitera; hortaz, ez dira onartzen sasoi-jarduerak edo asteburuetakoa.

g) Kenkari honen aplikaziorako ezarritako betekizunak ez betetzeak sortuko du bidegabeki kendutako kopuruak ordaintzeko betebeharra, kasuko berandutza-interesekin ordaindu ere. Ordainketa hori egiteko, behar den kopurua gehituko zaio ez-betetzea gertatu den zergaldiko kuota diferentzialari”.

Hogeita hamabi. 68.bis artikulua indargabetea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

Hogeita hamahiru. 68. artikulua gehitzea. Sexties. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“68. artikulua. Sexties. Jaiotza-tasa eta hiru urtetik beherako seme-alabak dituzten gurasoen lana sustatzeko kenkaria.

1. Hiru urtetik beherako seme-alabak dituzten emakumeek eta gizonek, beren kontura edo besteren kontura jarduera bat egiten badute eta jarduera horren ondorioz Gizarte Segurantzako edo mutualitateko araubidean alta emanda badaude, urtean gehienez ere 1.200 euro kendu ahal izanen dituzte zerga honen kuota diferentzialetik, hiru urtetik beherako seme-alaba bakoitzeko.

Adopzioaren edo harreraren kasuetan, adopzio aurrekoa zein iraunkorra izan, kenkaria aplikatu ahal izanen da, adingabearen adina edozein dela ere, Erregistro Zibilean inskribatu eta hurrengo hiru urteetan.

Inskripzioa beharrezkoa ez denean, kenkaria egin ahal izanen da inskripzioa deklaratzeko duen ebazpen judizial edo administratiboa eman eta hurrengo hiru urteetan.

Ama hiltzen den kasuetan, edo zaintza eta jagoletza eskusiboki aitari edo, hala badagokio, tutore bati esleitzen zaizkionean, artikulua honetan aurreikusitako baldintzak betetzen baditu, tutoreak eskubidea izanen du egiteke dagoen kenkaria egiteko.

2. Aurreko 1. apartatuan aurreikusitako kenkaria kalkulatu da apartatu horretan ezarritako baldintzak aldi berean betetzen direneko hilabete kopuruaren arabera, eta seme-alaba bakoitzerako mugatzat hartuko dira Gizarte Segurantzari eta mutualitateei guztira ordaindu beharreko kotizazioak eta kuotak, jaiotzaren edo adopzioaren ondoren zergaldi bakoitzean sortutakoak.

Muga horiek kalkulatzaren ondorioetarako, kotizazio eta kuota horien zenbateko osoak hartuko dira aintzat, legozkiekeen hobariak kontuan hartu gabe”.

Hogeita hamalau. 73. artikulua 5. apartatua aldatzea.

“5. Familia-unitate bateko kide diren pertsona fisikoak, titulu honetan araututako tributazio modua aukeratu badute, batera eta solidarioki geratuko dira zergaren mende subjektu pasibo gisa, deusetan galarazi gabe zerga zorra elkarren artean hainbanatzeko eskubidea, bakoitzari dagoen zergapeko errenta zatiaren arabera.

Aurrekoa gorabehera, epai judizial bidez genero-indarkeriaren biktimatat hartutakoek eskatzen ahalko dute errudunarekin batera tributatzeari dagokionez duten erantzukizuna soilik izan dadila eskaeraren egunean ordaintzeko dagoen zorraren gainekoa, banakako beren zergapeko errentari dagokiona. Ondorio horietarako, biktimari dagoen erantzukizuna bere zerga-oinarri positiboak familia-unitatearen zerga-oinarri positibo guztien baturarekiko duen proportzioaren arabera izanen da, eta proportzio hori eskaeraren egunean ordaintzeko dagoen zor osoaren gainean aplikatuko da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa zergadunak eskatuta baino ez da aplikatuko, eta epai judiziala aurkeztu beharko da eskaerarekin batera. Soilik eraginez die eskaeraren egunean ordaintzeko dauden eta epaiaren funtsa den lehenbiziko salaketa aurkeztu aurreko lau zergaldiei dagozkien zorrei”.

Hogeita hamabost. Berrogeita hamabosgarren xedapen gehigarriko 2. apartatua aldatzea. Birgaitze-obrak. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“2. Errenta salbuetsitatzat joko dira, halaber, honako arauak xedatzen dutena aplikatuz emandako dirulaguntza publikoak:

a) Urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planen sartutako etxebizitzaren birgaitzearen arloko laguntza-programak; abuztuaren 4ko 737/2020 Errege Dekretua, zeinaren bidez arautzen baita egungo eraikinen birgaitze energetikoko jarduketetarako laguntza-programa, eta arautzen baita programa horretako laguntzak autonomia erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei zuzenean ematea; eta abuztuaren 3ko 691/2021 Errege Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira egungo eraikinen birgaitze energetikoko jarduketetarako eman beharreko dirulaguntzak, erronka demografikoko udalerrietan dauden eraikinetarako birgaitze energetikoko programaren ildoan (PREE 5000 Programa).

b) Ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretua, zeinaren bidez onesten baita zuzeneko laguntzak ematea autonomia erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei pizgarri-programak gauzatzeko, lotuta daudenak autokontsumoarekin eta energia-iturri berriztagarrien bidez biltegitarekin, baita bizi-tegi-sektorean energia berriztagarriak erabiltzen dituzten sistema termikoak ezartzearekin ere, Europako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan”.

Hogeita hamasei. Hirurogeita bosgarren xedapen gehigarriko 1., 2. eta 3. apartatuak eta 4. apartatuko hirugarren paragrafoa aldatzea. Etxebizitzaren energia-efizientzia hobetzeko obregatikoen kenkaria. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“1. Zergadunek zilegi izanen dute beren ohiko etxebizitzaren edo une horretan etxebizitza gisa erabilia izateko alokairuan emana nahiz alokagai duten beren jabetzako beste edozein etxebizitzaren berokuntza- eta hozkuntza-eskaria murrizteko asmoz 2022an eta 2023an eginiko obregatik epe horretan ordaindu dituzten kopuruaren ehuneko 20 kentzea, baldin eta, azken kasu horretan, etxebizitza 2024ko abenduaren 31 baino lehenago alokatzen bada.

Ondorio horietarako, etxebizitzaren berokuntza- eta hozkuntza-eskaria murriztu dela ulertuko da, soilik, ehuneko 7 murrizten bada, gutxienez ere, obrak egin ondoren teknikari eskudunak jaulkitako etxebizitzaren energia-efizientziari buruzko ziurtagiria jasotako berokuntza- eta hozkuntza-eskariaren adierazleen batura, obrak hasi aurretik jaulkitako ziurtagirikoekin alderatuta.

Kenkaria eginen da obrak egin ondoren eginiko energia-efizientziaren ziurtagiria jaulkitzen den zergaldian. Edozein kasutan, ziurtagiri hori 2024ko urtarrilaren 1a baino lehenago jaulki beharko da.

Kenkari honen gehieneko oinarria 5.000 eurokoa izanen da urtean.

2. Zergadunek zilegi izanen dute beren ohiko etxebizitzaren edo une horretan etxebizitza gisa erabilia izateko alokairuan emana nahiz alokagai duten beren jabetzako beste edozein etxebizitzaren energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoa hobetzeko asmoz 2022an eta 2023an egini-ko obren epe horretan ordaindu dituzten kopuruaren ehuneko 40 kentzea, baldin eta, azken kasu horretan, etxebizitza 2024ko abenduaren 31 baino lehenago alokatzen bada.

Ondorio horietarako, obra horiek egin diren etxebizitzaren energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoa hobetu dela ulertuko da, soilik, gutxienez ere ehuneko 30 murrizten denean energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoaren adierazlea, edo etxebizitzaren energia-kalifikazioaren hobekuntza bat lortzen denean, halako moldez non, kalifikazio-eskala berean, «A» edo «B» energia-klasea lortzen den, hori frogaturik obrak egin ondoren teknikari eskudunak jaulkitako energia-efizientziaren ziurtagiriaren bidez, obren hasiera aurretik jaulki zenarekin alderatuta.

Kenkaria eginen da obrak egin ondoren egini-ko energia-efizientziaren ziurtagiria jaulkitzen den zergaldian. Edozein kasutan, ziurtagiri hori 2024ko urtarrilaren 1a baino lehenago jaulki beharko da.

Kenkari honen gehieneko oinarria 7.500 eurokoa izanen da urtean.

3. Nagusiki etxebizitza-erabilerakoak diren eraikinetan kokaturiko etxebizitzaren jabe diren zergadunek, baldin eta eraikin horietan 2022an, 2023an eta 2024an energia-birgaitze obrak egin badira, zilegi izanen dute aipatu obren epe horretan ordaindutako kopuruaren ehuneko 60 kentzea. Ondorio horietarako, eraikinaren energia-birgaitze obratzat joko dira halakoak non etxebizitza kokatzen den eraikinaren energia-efizientzia hobetzea lortzen baita, eta frogatu egin beharko da, eraikinaren energia-efizientziaren ziurtagiriaren bitartez, zeina teknikari eskudunak jaulkitako baitu obrak egin direnean, energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoaren beherakada izan dela, energia-ziurtagirian jaso eta gutxienez ere ehuneko 30ekoa edo, bestela, eraikinaren energia-kalifikazioa hobetu dela, kalifikazio-eskala berean «A» edo «B» energia-klasea lorturik, obren hasiera aurretik jaulkitako ziurtagiriarekin alderatuta.

Etxebizitzekin parekatuko dira haiekin batera erosiak diren garaje-plazak eta trastelekuak.

Ez dute kenkari hori egiteko eskubiderik emanen jarduera ekonomiko bati atxikita dagoen etxebizitza-zatian egini-ko obrek.

Kenkaria 2022, 2023 eta 2024ko zergaldietan eginen da haietako bakoitzean ordaindutako kopuruei dagokienez, baldin eta energia-efizientziaren ziurtagiria kenkaria eginen den zergaldia amaitu aurretik jaulki bada. Ziurtagiria jaulkitzen denean obra horientzako kopuruak ordaindu ziren zergaldiaren ondorengo batean, kenkaria eginen da ziurtagiria jaulkitzen den aldirian. Nolanahi dela ere, ziurtagiri hori 2025eko urtarrilaren 1a baino lehenago jaulki beharko da.

Kenkari honen gehieneko oinarria 5.000 eurokoa izanen da urtean.

Kenkariaren urteko gehieneko oinarria gaintzeagatik kenkaria egin gabe geratu diren kopuru ordainduetan kenkaria egiten ahalko da, muga berarekin, hurrengo lau ekitaldietan. Kenkariaren oinarri metatuak ezin izanen du ezein kasutan 15.000 euro gaintu.

“1, 2 eta 3. apartatuetan jasotako kenkariaren oinarria 64.4 artikuluan ezarritakoaren arabera zehaztuko da, eta soilik hartuko dira kontuan obra horiek egiten dituzten pertsona edo erakundeei, bai eta aipatu ziurtagiriak ematen dituzten pertsona edo erakundeei ere, kreditu edo zordunketa txartel bidez, banku transferentziaren bidez, txeki izendunen bidez edo kreditu erakundeetako kontuetan egindako diru-sarreraren bidez ordaindutako zenbatekoak. Ezein kasutan ez dute kenkaria egiteko eskubiderik emanen legezko diruaren ematearen bitartez ordaindutako kopuruek”.

Hogeita hamazazpi. Hirurogeita seigarren xedapen gehigarria gehitzea. 2023rako aplikatze-ko den diru-murrizketako koefizienteak.

Foru lege honen 41. artikuluan 4. apartatuan ezarritakoaren ondorioetarako, kostu bidezko nahiz kostu gabeko eskualdaketen kasuan ondare-elementuen eskurapen-balioa kalkulatzeko, 2022an egini-ko eskualdaketei aplikatze-koak diren gaurkotze-koefizienteak honako hauek izanen dira:

Ekitaldiak	Koefizienteak
1994. urtea eta aurrekoak	1,700
1995	1,805
1996	1,739
1997	1,700
1998	1,662
1999	1,617
2000	1,562

2001	1,504
2002	1,451
2003	1,411
2004	1,370
2005	1,326
2006	1,282
2007	1,247
2008	1,198
2009	1,194
2010	1,174
2011	1,139
2012	1,113
2013	1,096
2014	1,094
2015	1,094
2016	1,094
2017	1,073
2018	1,056
2019	1,046
2020	1,046
2021	1,020
2022	1,000

Hogeita hemezortzi. Hirurogeita zazpigarren xedapen gehigarria gehitzea. Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko plan nazionalaren esparruan emandako laguntzak. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Hirurogeita zazpigarren xedapen gehigarria. Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko plan nazionalaren esparruan emandako laguntzak.

2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege-dekretuaren babesean emandako laguntzak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira. Errege lege-dekretu horren bidez, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko, kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko eta La Palma uhar-tearen susperraldi ekonomiko eta sozialerako zenbait neurri hartu eta luzatzen dira, bai eta abuztuaren 1eko 14/2022 Errege Lege-dekretuaren babesean emandako laguntzak ere (14/2022 Errege Lege-dekretua, Garraioaren arloko jasangarritasun ekonomikoko neurri buruzkoa, ikasketetarako beka eta laguntzei dagokienez, eta aurrezpen neurriei, energia-efizientziari eta gas naturalaren mendekotasun energetikoa murrizteari buruzkoa)”.

Hogeita hemeretzi. Hogeita hamaikagarren xedapen iragankorra gehitzea. Prezio-igoeraren ondorioak samurtzeko kenkari gehigarria, hertsiki 2022ko zergaldira mugatua.

“1. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek zerga-oinarriaren parte orokorra 30.000 eurokoa edo gutxiagokoa daukatenean, 2022ko zergaldiari dagokion autolikidazioan 435 euroko kenkaria aplikatuko dute.

2. Subjektu pasiboek zerga-oinarriaren parte orokorra 30.000 euro baino handiagoa eta 45.000 euro baino txikiagoa daukatenean, aplikatuko duten kenkaria izanen da 435 euro ken biderkadura bat, zeina baita zerga-oinarri orokorra 30.000 euro minoratetik suertatzen den zenbatekoa 0,029rekin biderkatzearen emaitza.

3. Familia-unitate baten parte diren subjektu pasiboek honako kenkaria aplikatuko dute:

a) familia-unitatearen zerga-oinarriaren parte orokorra 40.000 eurokoa edo gutxiagokoa denean, 850 euroko kenkaria aplikatuko dute.

b) zerga-oinarriaren parte orokorra 40.000 euro baino handiagoa eta 65.000 euro baino txikiagoa daukatenean, aplikatuko duten kenkaria izanen da 850 euro ken biderkadura bat, zeina baita familia-unitatearen zerga-oinarria 40.000 euro minoratetik suertatzen den zenbatekoa 0,034rekin biderkatzearen emaitza.

Kenkari hori aplikatuko da VI. tituluak aipatzen duen baterako tributazioa aukeratzen bada eta kasu horretan soilik, eta bakarra izanen da familia-unitate osoarentzat.

4. Kenkari horrek murriztu eginen du kuota osoaren zenbatekoa, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategineko 58. artikulua aipatzen duena”.

Berrogei. Hogeita hamabigarren xedapen iragankorra gehitzea. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan 2022ko laugarren hiruhilekoko konturako ordainketa zatikatuetatik salbuestea.

1. Jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako zergadunak ez dira behartuta egonen 2022ko laugarren hiruhilekoari dagozkion ordainketa zatikatuak autolikidatu eta Nafarroako Foru Ogasunari ordaintzera.

2. Baldin eta ordainketa zatikatu horren autolikidazioa beren borondatez aurkezten badute, subjektu pasiboak ez du eskubiderik izanen gero hori

ordainketa bidegabeen kontzeptuan itzul dakion eskatzeko.

Bigarren artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua (maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretua)

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren manu hauek (erregelamendua maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen) honela idatzita geldituko dira:

Bat. 8. artikulua aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“A) Arau orokorrak:

1. Zergari buruzko Foru Legearen 14.1.d) artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, salbuetsita izanen dira lokomozio-gastuetarako eta ostalaritza-establezimenduetako mantenu- eta egonaldi-gastu arruntetarako esleipenak, artikulua honetan adierazitako baldintzak eta mugak betezen dituztenak, bai eta urrutiko lanaren edo telelanaren kasuan lan-jardueraren garapenarekin lotutako ekipo, erreminta eta bitartekoekin lotutako gastuetarako esleipenak ere.

Urrutiko lanaren edo telelanaren kasuan, lanjarduera garatzearekin lotutako ekipo, erreminta eta bitartekoekin lotutako gastutzat hartuko dira, besteak beste, honako hauei dagozkienak: elektrizitatea, telefonia, Interneteko konexioa, ohiko etxebizitzaren berokuntza eta langileak erositako bulego-materialak, urtean 2.000 euroko mugara bitarte”.

2. Lokomozio-gastuetarako esleipenak.

Zergapetzetik salbuetsita egonen dira enpresak langilearen lokomozio-gastuak konpentsatzeko erabiltzen dituen zenbatekoak, gastu horiek sortu badira langilea fabrikatik, lantegitik, bulegotik edo lantokitik kanpora joan delako bere lana egitera, honako baldintza eta zenbateko hauei jarraikiz:

a) Langileak garraiobide publikoak erabili baditu, fakturaren edo dokumentu baliokide baten bidez justifikatutako gastuaren zenbatekoa.

b) Bestela, egindako kilometro kopurua 0,40 euroz biderkatuta ateratzen den zenbatekoa, betiere, joan-etorria egiaztatu bada, gehi justifikatutako ordainsari- eta aparkaleku-gastuak.

3. Mantenu eta egonaldirako esleipenak.

Zergapetzetik salbuetsita egonen dira enpresak jatetxe, hotel eta gainerako ostalaritza-lokaletako mantenu- eta egonaldi-gastu arruntak konpentsatzeko erabiltzen dituen zenbatekoak, hartzailaren ohiko lantokia eta bizilekua dauden

udalerriez bestelako udalerrri batean sortu direnean.

Salbu eta ondoko b) letran aurreikusitako kasuetan, ohiko lantokiarenaz bestelakoa den udalerrri batera tokialdatu eta bertan bederatzi hilabete baino tarte jarraitu luzeagoan egotearen kasuan, esleipen horiek ez dira kargapetzetik salbuetsiko. Ondorio horretarako, ez da deskontatuko oporraldia, gaixoaldia edo enplegatua lantoki-aldaketa erakartzen ez duen beste zirkunstantzia baten iraunaldia.

a) Mantenuko eta hotel, jatetxe eta gainerako ostalaritza-establezimenduetako egonaldi-gastu normaletarako esleipen gisa joko dira honakoak soilik:

Lehena. Ohiko lantokia eta hartzailaren egoitza den udalerriaz beste batean gaua igarotzearena.

Egonaldi-gastuak, faktura bidez justifikatzen diren zenbatekoak. Errepidezko salgai-garraioan diharduten ibilgailu-gidarien kasuan, ez dute zenbatekoari buruzko justifikaziorik behar izanen eguneko 20 euro baino gehiagokoak ez diren egonaldi-gastuek, baldin eta Espainiako lurraldean zeharreko tokialdatzearen ondoriozkoak badira, edo 30 euro baino gehiagokoak ez direnek, atzerriko lurraldeetarako tokialdatzeen ondoriozkoak izanez gero.

Mantenu-gastuengatik: 60 euro egun bakoitzeko, Espainiako lurraldearen barneko joan-etorriak direnean; eta 100 euro egun bakoitzeko, atzerriko bidaiak direnean.

2. Gaua ez bada pasa ohiko lantokia eta hartzailaren egoitza denaz beste udalerrri batean, eguneko 30 edo 55 euro baino gehiagokoak ez diren mantenu-gastuetarako esleipenak, zein den kasua: Espainiako lurraldearen barneko tokialdatzea edo atzerriko lurralderakoa, hurrenez hurren.

Errepidezko salgai-garraioan diharduten ibilgailu-gidarien kasuan, mantenu-gastu normaletarako esleipen gisa joko dira eguneko 40 euro baino gehiagokoak ez diren zenbatekoak, baldin eta Espainiako lurraldean zeharreko tokialdatzearen ondoriozkoak badira, edo 70 euro baino gehiagokoak ez direnak, atzerriko lurraldeetarako tokialdatzeen ondoriozkoak izanez gero. Egund berean bi zirkunstantzia horiek gertatuz gero, aplikatu beharreko zenbatekoa izanen da eguneko hegaldi-kopuru handienaren arabera.

Aurreko paragrafoetan adierazitako ondorioetarako, ordaintzaileak frogatu egin beharko du tokialdatzearen egun eta tokia, bai eta horren arrazoa ere.

b) Honako kopuru hauek kargatik salbuetsitako dietatzat joko dira:

1. Funtzionario publikoek eta atzerrira esleituriko lanpostua duten administrazio publikoetako langileek jasotzen duten gaindikina, lantokia Espainian edukitzearen kasuan soldata, antzinasun, osagarri edo pizgarrien ondorioz lortuko lituzketen guztizko ordainsarietatik gorakoa. Ildo horretan, ordainsari-arloko organo eskudunak erabakiko du zein diren langile horiei legozkiekeen ordain-baliokidetasunak, lantokia Espainian esleituta edukitzearen kasuan.

2. Lantokia atzerrian duten enpresa-enplegatuek jasotzen duten gaindikina, soldata, egunsari, antzinasun, aparteko ordainsari, are onurak, familia-laguntza edo beste edozein kontzepturen ondorioz, karguagatik, enpleguagatik, kategoriatatik edo lanbideagatik, lantokia Espainian edukitzearen kasuan.

Letra honetan aurreikusten dena bateraezina izanen da 5. artikuluan aurreikusitako salbuestea-rekin.

4. Aurreko apartatuek aurreikusten duten araubidea halaber aplikatuko zaie lokomozio-, mantenu- eta egonaldi-gastuetarako esleipenei, horiek jasotzen dituzten langileak direnean berariaz kontratatuak beren zerbitzuak lantoki mugikor edo ibiltaridun enpresetan emateko, baldin eta esleipen horiek badira langilearen ohiko egoitza dagoen udalerriaz beste baterako tokialdatzeei.

5. Artikulu honetan kargapetzetik salbuetsitako zenbatekoak berrikusiak izaten ahalko dira tributu-alorreko eskumena duen departamentuko kontseilariaren eskutik, funtzionario publiko diren langileen dietak berrikusiak diren proportzioan.

6. Artikulu honetan ezarritako mugak gainditzten dituzten lokomozio-, mantenu- eta egonaldi-gastuetarako esleipenak kargapetuak egonen dira. B) Erregela bereziak:

1. Lokomozio- eta mantenu-gastuak ez badizkiete espresuki ordaintzen beren zerbitzu-hartzaile diren enpresek, mendekotasuneko lan-harreman berezietatik eratorritako lan-etekinak eskuratzen

dituzten subjektu pasiboek zilegi izanen dute, orduan, beren diru-sarrerak minoratzea, beren etekin garbiak zehazte aldera, honako kopuru hauetan, baldin eta beren tokialdatzeak egiazkoak direla frogatzen badute:

a) Lokomozio-gastuengatik.

Garraiobide publikoak erabiltzen badira, fakturaren edo dokumentu baliokide baten bidez justifikatutako gastu-zenbatekoa.

Bestela, egindako kilometro kopurua 0,40 euroz biderkatuta ateratzen den zenbatekoa, betiere, joan-etorria egiaztatu bada, gehi justifikatutako ordainsari- eta aparkaleku-gastuak.

b) Mantenu-gastuengatik, egunean 30 euro edo 55 euro, tokialdatzea non den: Espainiako lurraldean ala atzerrian.

Ildo honetan, enpresak betiere ere espresuki ordaindu beharrekoak izanen dira egonaldi-gastuak, eta artikulu honen A) letrako 3.a) apartatuan eraenduko dira.

2. Kargapetzetik salbuetsita egonen dira subjektu pasiboari lantokia beste udalerriri batera tokialdatzearen ondorioz ordaintzen zaizkion kopuruak, baldin eta horrek behartzen badu egoitza aldatzera eta, soil-soilik, haien jomuga badira subjektu pasiboak eta haren ahaideek tokialdatzerako izandako lokomozio- eta mantenu-gastuak eta haien altzariak eta gauzakiak garraiatzeko gastuak.

3. Kargapetzetik salbuetsita egonen dira zinpeko izateko hautagaiek eta zinpeko titular eta ordezkoez beren eginkizunetan aritzeagatik jasotako kopuruak, martxoaren 1eko 385/1996 Errege Dekretuaren arabera, bai eta Hautesmahaietako kideek jasotakoak ere, hautesmahaietako kideen dieta arautzen duen martxoaren 7ko INT/282/2019 Aginduak ezartzen duenaren arabera.

Bi. 56.a) artikulua aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“a) Urtean 15.000 eurotik beherako lan etekin osoak”.

Hiru. 71. artikuluko Bat apartatua aldatzen da: 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondo-riak.

“Bat. Atxikipen-portzentajeen taula orokorra:

URTEKO ETEKINA EUROTAN	SEME-ALABEN ETA BESTE ONDORENGO BATZUEN KOPURUA										
	SEME- ALABARIK GABE	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10 edo gehiago
15.000 baino gehiago	6,0	4,0	2,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
15.350 baino gehiago	8,0	6,0	4,0	2,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
18.000 baino gehiago	10,0	8,0	6,0	4,0	1,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
21.350 baino gehiago	12,0	11,0	9,0	7,0	6,0	4,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
25.000 baino gehiago	13,5	12,2	11,5	8,7	7,7	5,7	3,6	0,0	0,0	0,0	0,0
27.750 baino gehiago	14,6	13,3	12,6	9,9	9,2	7,8	5,8	3,8	0,8	0,0	0,0
30.350 baino gehiago	15,8	14,5	13,7	12,4	10,7	8,9	7,9	5,9	3,9	0,9	0,1
34.500 baino gehiago	17,0	16,0	15,0	13,6	12,5	10,8	10,0	8,0	7,0	5,0	2,0
38.000 baino gehiago	18,1	17,1	16,5	14,7	14,0	13,3	12,2	10,2	9,1	7,1	6,1
43.750 baino gehiago	20,0	19,0	18,3	16,9	16,2	15,5	13,7	12,4	11,3	10,2	9,2
50.850 baino gehiago	22,1	21,5	20,9	18,9	18,3	17,7	16,6	15,6	14,5	13,4	12,3
55.000 baino gehiago	24,1	23,5	23,0	22,0	21,5	20,9	19,8	18,7	17,7	16,6	15,0
62.000 baino gehiago	26,1	25,5	24,5	24,0	23,5	22,9	21,9	21,4	19,8	18,7	17,2
69.250 baino gehiago	28,3	27,7	27,0	26,6	25,5	25,0	24,4	22,9	21,8	20,3	19,3
75.250 baino gehiago	29,6	29,2	28,3	27,3	27,2	26,2	26,1	24,5	23,4	22,3	21,3
82.250 baino gehiago	30,8	30,5	30,0	29,4	29,0	28,3	27,7	26,6	25,6	24,5	23,9
94.750 baino gehiago	32,2	31,7	31,2	30,8	30,4	30,0	29,5	28,9	27,8	26,8	25,7
107.250 baino gehiago	33,5	33,0	32,6	32,3	32,0	31,5	31,0	30,0	29,5	28,5	28,0
120.000 baino gehiago	35,1	34,8	34,6	34,0	33,5	32,9	32,4	31,3	30,7	29,7	29,1
132.750 baino gehiago	36,2	36,0	35,8	35,0	34,5	33,9	33,4	32,8	32,0	31,0	30,0
146.000 baino gehiago	38,0	37,5	37,0	36,5	35,5	34,9	34,4	34,0	33,5	32,0	31,5
200.000 baino gehiago	40,0	39,8	39,4	39,0	38,5	38,0	37,5	35,5	34,5	33,7	33,0
280.000 baino gehiago	42,0	41,5	41,2	40,8	40,0	39,5	39,0	37,0	36,0	35,2	34,5
350.000 baino gehiago	43,0	42,9	42,8	42,5	41,5	41,0	40,5	38,5	37,5	36,7	36,0

Desgaitasuna duten jarduneko langileei aurreko taularen arabera atxikipen-ehunekoak aplikatuko zaie, ondoko eskalan ageri diren puntuetan minoratua:

Urteko etekinak (euroak)		DESGAITASUN GRADUA	
Noiztik	Noiz arte	100eko 33 edo gehiago	100eko 65 edo gehiago
15.000,01	25.500	5	15
25.000,01	43.750	3	15
43.750,01	94.750	2	8
94.750,01	Hortik gora	2	5

Eskala horretan agertzen diren murrizketak aplikatzearen ondorioz, ezin izanen da zerotik beherako portzentajerik atera.

Hirugarren artikulua. Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea.

Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 5. artikulua 8. apartatuko B) letra aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

«Subjektu pasiboak entitatean duen partaide-tza % 5etik beherako izatea, indibidualki zenbatuta, edo % 20tik beherakoa ezkontideak, aurreko edo ondorengo ahaideek edo hirugarren gradurainoko albo-ahaideek dutenarekin zenbatuta, berdin delarik ahaidetasuna odolkidetasunetik, ezkontza-ahaidetasunetik edo adopzioetik etortzea».

Bi. 5.8.Hiru artikuluar bi paragrafo gehitzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Ez dira jarduera ekonomiko bat garatzeko beharrezkoak ez diren aktibo gisa zenbatuko, eskurapen-prezioa entitateek lorturiko mozkin banatu gabeen zenbatekoa baino txikiagoa dutenak, baldin eta etekin horiek jarduera enpresarial edo profesionalen ondoriozkoak badira; horretarako muga izanen da bai urte berean bai aurreko azken hamar urteetan lorturiko etekinen zenbatekoa. Paragrafo honetan xedatutakoa aplikatzeagatik beharrezkoak ez diren aktibo gisa zenbatzen ez diren elementuek ezin izanen dute aktibo osoaren % 75 gainditu.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, jarduera ekonomikoetatik lortutako etekinekin parekatzen dira aurreko bi A) apartatuaren d) letran aipatzen diren baloreetatik lortutako dibidenduak, baita partaidetza horien eskualdaketetan lortutako gainbalioak ere, partaidetzako entitateak lortutako diru-sarreraren % 80, gutxienez, enpresa-edo lanbide-jarduerak egitetik lortu badira».

Hiru. Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 5. artikuluar 9. apartatua gehitzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“9. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarrian aipatutako entitateen partaidetzen gaineko jabetza osoa, jabetza soila eta bizitza osorako gozamen-eskubidea, entitate

horiek merkatu antolatuetan kotizazioa izan zein ez”.

Lau. 28. artikulua 1. apartatua aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“28.1 artikulua. Likidazio-oinarria

Likidazio-oinarria kalkulatzeko, zerga-oinarria 800.000 euro murriztuko da, salbuetsita dagoen gutxienezkotzat harturik”.

Bost. 31.1 artikuluko lehen paragrafoa eta 31.2 artikulua aldatzea. Kuota osoaren muga. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“31. artikulua. Kuota osoaren muga

1. Zerga honen kuota osoaren eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuota osoaren batura ez da izaten ahal azken horren zerga-oinarriaren zenbatekoaren 100eko 60 baino gehiagokoa. Ondorio hauetarako, ez da kontuan hartuko beren izaeragatik edo xedeagatik pertsona fisikoen errentaren gaineko zergapeko etekinak sortzeko modukoak ez diren ondare-elementuei dagokien kuota-zatia.

2. Bi kuoten baturak 1. apartatuan aipatzen den muga gainditzen baldin badu, zerga honen kuota gutxituko da muga horretara iritsi arte; gutxitze horrek ezin izanen du ehuneko 80 gainditu”.

Laugarren artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legea.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 12.1.a) artikuluko lehen paragrafoa aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“a) Aurreko zergaldian izandako negozio zifren zenbateko garbia hogeita hamar milioi eurotik beherakoa izatea”.

Bi. 20.1 artikulua 1. apartatua aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“1. Zordunen kaudimengabeziaren ondorioz kredituen balio-galtzeak ekarritako galerak kengarriak dira, zergaren sortzapenaren unean honako inguruabarretakoren bat tartean bada:

a) Obligazioaren mugaegunetik hiru hilabeteko epea pasatua izatea.

b) Zorduna konkurtso egoeran izatea.

c) Zorduna edo, entitate bat baldin bada, haren administratzaile edo ordezkarietakoren bat ondatsunak ostentzeagatik auziperatua izatea.

d) Obligazioak auzitegian erreklamatuak izana edo kobratu ahal izatea auzi baten edo arbitraje prozedura baten konponketaren baitan egotea.

Aurrekoa gorabehera, zordunen balizko kaudimengabeziatik eratorritako kredituen narriaduragatik galerak kengarriak izanen dira, aurreko b) eta d) letretan aurreikusitako inguruabarrak zergaren autolikidazioa aurkezteko epea hasi aurretik gertatzen direnean”.

Hiru. 23. artikuluko 3. apartatuko a) eta b) letrak aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“a) Oro har, aipaturiko ibilgailuen erosketa, errentamendu, konponketa, mantentze eta amortizazioarekin zerikusia duten gastuen eta haien erabilerari loturiko beste edozeinen % 50 kengarri izanen da, muga hauekin, ibilgailu eta urte bakoi-tzeko:

1. Amortizazio, errentamendu edo lagapen gastuen kontzeptuan, zergadunak erabilitako amortizazio portzentajea 30.000 euroz biderkatuta ateratzen den zenbatekoaren %50a.

2. Erabilerarekin lotutako gainerako kontzeptuei dagokienez, aipatu ibilgailuak erostearekin lotutako finantza gastuak barne, 6.000 euro.

Pertsona batek aldi berean erabiltzen baditu letra honetan aipatu ibilgailuetako bat baino gehiago, aipatu diren mugak pertsona eta urteko aplikatuko dira, zenbat ibilgailu erabiltzen dituen kontuan hartu gabe.

b) Entitateak modu fede-emailean frogatzen badu ezen erabilerara dela jarduera ekonomiko bat soilik garatzeko, edo kasuko kopurua haien erabiltzaile den pertsonari egotzi bazaio ordainketa gisa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 16. artikuluan ezarritakoarekin bat, a) letran aipaturiko gastuak osorik izanen dira kengarriak, muga hauekin:

1. Amortizazio, errentamendu edo lagapen gastuen kontzeptuan, zergadunak erabilitako amortizazio portzentajea 30.000 euroz biderkatuta ateratzen den zenbatekoa.

2. Erabilerarekin lotutako gainerako kontzeptuei dagokienez, aipatu ibilgailuak erostearekin lotutako finantza gastuak barne, 9.000 euro”.

Lau. 25. artikuluari 12. apartatua gehitzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“12. Konkurtso-prozeduren esparruan unitate produktiboak eskualdatzen direnean, baldin eta eskualdatze horietan aktibo identifikagarrien balioa ken onartutako pasiboen balioa egitearen emaitza handiagoa bada negozio-konbinazioaren kostua baino, eskuratzailak, zerga-ondorioetarako, batzuk eta besteak baloratu beharko ditu, eta transakzioaren kostua horien guztien artean banatu, beren arrazoizko balio erlatiboen arabera”.

Bost. 37. artikulua 1. apartatua aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“1. Ez dira zerga-oinarrian sartuko ibilgetu materialaren eta ukiezinaren ondare elementuen eta ondasun higiezinetan egindako inbertsioen kostu bidezko eskualdatzean lortzen diren errentak edo elementu horien eskualdatzetik lortutako errentak, baldin eta eskualdatu aurretik, saltzeko mantendutako aktibo ez korrontetzat sailkatu badira, entitatearen ustiatze ekonomikoari atxikiak badaude eta, gutxienez ere, urtebetez funtzionamenduan egon badira eskualdatu aurreko hiru urteetan, betiere aipatu eskualdatzeen zenbatekoa berrinbertitzen bada lehen aipatu diren ondare elementuetan, atxikitakoetan, edozeinetan, ondare elementua eman edo eskura jarri baino urtebete lehenagotik ondoko hiru urte arteko epean.

Aurreko paragrafoan xedatua gorabehera, eskualdatze edo berrinbertsioaren xede diren ondare-elementuak turismo-automobilak eta horien atoiak, ziklomotorrak, motozikletak edo 23.4 artikuluan aipaturiko ibilgailuak izanez gero, 23.3.e) artikulua aipatzen dituenak bakarrik onartuko dira.

Finantza-errentamenduko kontratuen bidez egindako inbertsioak onartuko dira, nahiz eta, kontabilitate arauak aplikatzeagatik, inbertsio horiek ez kontatu ibilgetu gisa.

Berrinbertsioaren zenbatekoa eskualdaketa guztirakoa baino txikiagoa bada, aipatu eskualdaketa lortutako errentaren proportziozko zatia baino ez da sartuko zerga-oinarrian”.

Sei. 42.1 artikuluari 5. apartatua gehitzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“5. 48.bis artikuluan ezarritako murriztapena”.

Zazpi. 43. artikulua 1. apartatua aldatzea eta 3. apartatua indargabetzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“1. Aurreko zergaldietako likidazio-oinarri negatiboek likidazioa edo autolikidazioa izan badute, zerga-oinarri positiboa murrizten ahal dute, 42.1 2.a eta 3.a. artikulua aipatzen dituen murriztapenen zenbatekoa kendu eta gero, hala badagokio”.

Zortzi. 48. bis artikulua gehitzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“48. bis artikulua. Kapitalizazio erreserba.

1. Foru lege honen 51. artikulua 1. apartatua ezarritako karga-tasan tributatzen duten zergadunek eskubidea izanen dute zerga-oinarri funts propioen gehikuntzaren zenbatekoaren % 10 murrizteko, betiere baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Erakundearen funts propioen gehikuntzaren zenbatekoa 5 urtez mantentzea, murriztapen horri dagokion zergaldia ixten denetik zenbatzen hasita, salbu eta entitatean kontabilitate-galerak badaude.

b) Murriztapenaren zenbatekoa duen erreserba ezartzea; erreserba hori balantzean agertu behar da, banantze eta titulu egokiarekin, eta ezin izanen da erabili aurreko letran aurreikusitako epean.

Eragin horietarako, ez da ulertuko erreserba hori erabili denik honako kasu hauetan:

a) Bazkideak edo akziodunak entitateetik bereizteko duen eskubidea erabiltzen duenean.

b) Erreserba osorik edo partzialki kentzen denean, foru lege honen VIII. titulua VIII. kapituluaren ezarritako zerga-araubide berezia aplikatzen ahal zaien eragiketen ondorioz.

c) Entitateak erreserba hori legezko betebeharen ondorioz aplikatu behar duenean.

Apartatu honetan aurreikusitako murriztapen-eskubideak ez du inola ere gaindituko murriztapen horren aurreko zergaldiko zerga-oinarri positiboaren ehuneko 10eko zenbatekoa, 42.1 artikuluko 1., 2., 3. eta 4. apartatuetan adierazitako murriztapenen zenbatekoa murriztu ondoren, hala badagokio.

Hala ere, murrizketa aplikatzeko zerga-oinarri nahikorik ez badago, murrizketa-eskubidea sortu den zergaldia itxi eta hurrengo 2 urteetan amaitzen diren zergaldietan aplikatu ahal izanen dira ordaintzeke dauden zenbatekoak, bai eta dagokion zergaldian artikulua honetan xedatutakoa aplikatzeagatik legokiokoen murrizketa ere, aurreko paragrafoan aurreikusitako mugarekin.

2. Funts propioen gehikuntza ekitaldiaren itxieran dauden funts propioen (haren emaitzak sartu gabe) eta ekitaldiaren hasieran zeuden funts propioen (aurreko ekitaldiko emaitzak sartu gabe) arteko alde positiboaren arabera izanen da.

Hala ere, gehikuntza hori zehazteko, honako hauek ez dira zergaldiaren hasierako eta amaierako funts propiotzat hartuko:

a) Bazkideen ekarpenak.

b) Kredituak konpentsatzearen ondoriozko kapital-gehikuntzak edo funts propioak.

c) Funts propioen zabalkuntzak, akzio propioekin edo berregituraketakoekin egindako eragiketengatik.

d) Lege- edo estatutu-izaerako erreserbak.

e) Finantza-tresna konposatuen jaulkipen bati dagozkion funts propioak.

f) Zerga honen karga-tasa handitzearen edo murriztearen ondorioz zerga geroratuen aktibotant gertatutako aldaketei dagozkien funts propioak.

Partida horiek ere ez dira, ezta ere, kontuan hartuko galdagarria den zergaldi bakoitzean funts propioen gehikuntzari eustea erabakitzeko.

3. Artikulu honetan aurreikusitako baldintzak ez betetzeak bidegabeki murriztutako zenbatekoak erregularizatzea ekarriko du, baita dagozkien berandutze-interesak ere”.

Bederatzi. 51. artikuluko 1. eta 2. apartatuak aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“1. Ondokoak izanen dira karga-tasa orokorrak:

a) Ehuneko 24.

b) Ehuneko 22, enpresa txikientzat.

Karga-tasa % 19 izanen da mikroenpresatzat hartzen diren enpresa txikientzat.

b) letra honetan arautzen diren karga-tasak aplikatzen ahalko dira, soilik, zergaldiko negozio zifraren zenbateko garbia zergaldi horretako zerga-oinarriaren % 50 bada, gutxienez.

Letra honetako karga-tasak ez zaizkie aplikatu inoiz ondare entitateetat hartzen diren entitateei.

2. Ehuneko 22ko tasa ordainduko dute hauek:

a) Partez salbuetsiak dauden entitateak, 130. artikuluan aipatuak.

Dena dela, mikroenpresa izaera badute, 1.b) apartatuan horietarako ezarritako tasaren arabera ordainduko dute.

b) Aseguru orokorretako mutuak eta Gizarte Segurantzaren gizarte aurreikuspeneko entitateak, beren araudiak ezarritako beharkizunak betetzen badituzte.

c) Elkarrekiko berme sozietateak eta birfidantza-entzumen sozietateak, Elkarrekiko Berme Sozietateen Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 11ko 1/1994 Legean arautzen direnak eta Espainiako Bankuaren erregistro berezian inskribatuta daudenak”.

Hamar. 53. artikulua aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“1. Zerga 51. artikuluan 1. eta 2. apartatuetan ezarritako karga-tasaren arabera ordaintzen duten zergadunen kasuan, kuota efektiboa ezin izanen da izan ondoko apartatuan definitzen den gutxieneko tributazioa baino txikiagoa.

2. Gutxieneko tributazioaren zenbatekoa zehazteko, honela jokatuko da:

Lehena. Kuotan aplikatutako hobariak karga-tasaren artean zatituta ateratzen den adina minoratuko da likidazio-oinarria, ekitaldian aplikaturik.

Bigarrena. Lortutako zenbatekoari ehuneko hauek aplikatuko zaizkio:

a) 51.1.a) artikuluan ezarritako karga-tasaren arabera tributatzen duten zergadunen kasuan, %15.

b) 51.1.b) artikuluko lehen paragrafoan edo 51.2 artikuluan ezarritako karga-tasaren arabera tributatzen duten zergadunen kasuan, % 13.

c) 51.1.b) artikuluko bigarren paragrafoan ezarritako karga-tasaren arabera tributatzen duten zergadunen kasuan, %10.

Hirugarrena. Arestiko eragiketaren emaitzari, kasua bada, honako zenbateko hauek minoratuko zaizkio:

a) Ekitaldian nazioarteko zergapetze bikoitza galarazteko aplikatutako kenkariak.

b) b) 64.A) artikuluan araututako energia berriztagarrien instalazioetan egindako inbertsioen ondoriozko kenkariak eta 65. eta 65 bis artikuluetan araututako film zinematografikoen eta ikus-entzunezkoetan parte hartzearen ondoriozko kenkariak».

c) 61. eta 62. artikuluetan araututako ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatiko edo halakoetan parte hartzeagatiko

kenkariak % 50. Enpresa txikien kasuan, porzentaje hori % 100 izanen da.

Arestiko b) eta c) letretan ezarritakoaren ondorioetarako, ekitaldian sortutako kenkariak eta aurreko ekitaldian aplikatu gabe gelditu direnak konputatu egingen dira. Gutxieneko tributazioaren zenbatekoa zehazteko kontuan hartzen diren kenkariak zergaldian aplikatu beharko dira.

3. Artikulu honetan ezarritakoa ez zaie aplikatuko 51.3 artikuluko entitateei, 51.1 artikuluan aipatzen diren zerga-tasa orokorrak aplikatzen zaizkien emaitzei dagokienez».

Hamaika. 58. artikuluko lehen paragrafoa aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“1. Ibilgetu materialeko elementu berrietan inbertsioak eginez gero, baldin eta elementu horiek (lurrak bazter utzita) entitatearen jarduera ekonomikoari atxikiak badaude, kuota likidoari inbertsio horien zenbatekoaren 100eko 15 kentzen ahalko zaio”.

Hamabi. 61. artikuluko 2. eta 3. apartatuak aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“2. Ikerketatzat hartuko dira ezagupen orokor zientifiko eta teknikoan bilaketa edo zabalkunde guztiak, baldin produktu, prozesu edo zerbitzu berriak sortzeko edo nabarmen hobetzeko balio badezakete.

Garapentzat hartzen da ikerketa edo bestelako ezagupen zientifiko baten emaitzak gauzatzea proiektu teknikoetan, produktu, prozesu edo zerbitzuentzako eskema edo diseinuetan, berriak izan nahiz aldatuak edo hobetuak, saltzekoak nahiz erabiltzekoak, horien barnean dela merkaturatzerik gabeko prototipoak sortzea. Jarduera honen barnean egonen da, halaber, beste produktu, prozesu edo zerbitzuen formulazio kontzeptuala eta diseinua egitea, bai eta hasierako erakustaldiak egiteko proiektuak edo proiektu pilotuak ere, betiere baldin produktu horiek ezin bihurtu edo erabili badira aplikazio industrialetarako edo merkaturatuazteko.

Ikerketa eta garapen jardueratzat hartzen da “software” aurreratua pentsatzea, sortzea, konbinatzea eta konfiguratzea teorema eta algoritmo berrien edo sistema eragileen, lengoaien, interfazeen eta produktuen, negozio-prozesuen edo zerbitzu berrien edo nabarmen hobetuen elaboraziora bideratutako aplikazioen bidez, baldin eta aurrerapen zientifiko edo teknologiko esanguratsua badakar eta ziurgabetasun zientifiko

edo tekniko bat sistematikoki konpontzeko helburua badu.

Desgaitasuna duten pertsonen informazioaren gizarteko zerbitzuetarako sarbidea errazteko softwarea ere kontzeptu horretan sartuko da, irabazi-asmorik gabe egiten denean.

Ez dira sartzen, ordea, softwarearen mantentze-lanekin edo haren eguneratzeekin zerikusia duten ohiko jarduerak edo errutinazkoak.

3. Aurreko apartatuan sartzen ez diren berrikuntza teknologikoko jardueretan arituz gero, eskubidea izanen da kasuan kasuko zergaldian izandako gastuen 100eko 15eko kenkaria egiteko kuota likidoan, apartatu honetan ezarritako baldintzetan.

Aurreko paragrafoan ezarritako kenkaria ehuneko bost handituko da, baldin eta proiektuak gauzatzeko enkargua egiten bazaie Espainian edo Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko edozein estatu kidetan dauden unibertsitateei, ikerketa-organismo publikoei edo teknologia-zentro eta berrikuntza teknologikoari laguntzeko zentroeiei, bai eta Nafarroako I+G+b Sistemaren (SINAI) betearazpen-eragile gisa egiaztatutako enpresa-arloko I+G+b-ko unitateekin kontratatutakoak ere, Zientzia eta Teknologiar buruzko ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legean jasotakoak. d) letran jasotako kasuan ere igoera hori aplikatuko da.

Era berean, ETE Berritzaile zigiluarekin akreditatutako enpresek ere ehuneko bosteko kenkari gehigarria izanen dute.

Berritasun teknologikotzat jotzen da produktu edo produkzio prozesu berriak edo lehengo hobekuntza teknologiko nabarmenak lortzea emaitza duen jarduera.

Berrizat edo hobetuztat joko dira lehengo produktu eta prozesuen aldean mamizko ezaugarri edo aplikazio teknologiko diferenteak ageri dituzten ondasunak, zerbitzuak edo negozio-prozesuak.

Jarduera honetan sartuko da produktu eta prozesu berriak plano, eskema edo diseinu batean gauzatzea, eta bai merkaturatzerik gabeko prototipoak eta hasierako erakustaldiak egiteko proiektuak edo proiektu pilotuak eta zenbait industriatako erakusgaiak, hala nola animazio eta bideojokoetakoak, oihalgintza eta zapatagintzakoak, larrua ontzekoak, larrukigintzakoak, jostailugintzakoak, altzarigintzakoak eta zuraren industriako erakusgaiak, eta are aplikazio industrialetarako edo merkaturatu ustiatzeko bihurtu edo erabili ahal direnak ere.

Kenkariaren oinarria finkatzeko, berrikuntza teknologikoko jardueretan kontzeptu hauetan zergaldian egindako gastuak hartuko dira:

a) Diagnostiko teknologikoko jarduerak, konponbide teknologiko aurreratuak identifikatu, zehaztu eta orientatzera bideratuak, zeinahi delarik azkeneko emaitza.

b) Softwarearen ingeniari-tza, diseinu industriala eta produkzio prozesuen edo prozesuaren ingeniari-tza, horien barnean dela plano, marrazki eta euskarriak itxuratzea, produktu edo prozesu bat fabrikatu, saiatu, instalatu eta erabiltzeko eta zenbait industriatako erakusgaiak, hala nola oihalgintza eta zapatagintzakoak, larrua ontzekoak, larrukigintzakoak, jostailugintzakoak, altzarigintzakoak eta zuraren industriako erakusgaiak egiteko behar diren deskripzio elementuak, zehaztapen teknikoak eta funtzionamendu ezaugarriak definitzekoak.

c) Teknologia aurreratua eskuratzea, patente, lizentzia, "know-how" eta diseinuen bidez. Zergadunari lotutako pertsona edo entitateei ordaindutako diru-kopuruek ez dute kenkaria egiteko eskubiderik emanen. Kontzeptu honi dagokion oinarria ezin izanen da milioi bat eurotik gorakoa izan urtean.

d) Berrikuntzaren kudeaketari lotutako arauak betetzen direla egiaztatzeko ziurtagiriak lortzea (ISO 56002, UNE166000 edo antzekoak), baina arau horiek ezartzeko gastuak sartu gabe. Orobat, zaintza teknologikoa berrikuntzaren kudeaketako partetzat joko da, UNE 166006 betetze-ziurtagiriaren edo antzekoren baten lorpenaren bidez.

e) Ezagutzako Zerbitzu Intentsiboak hirugarrenei kontratatzea. Zerbitzu hauek definitzeko Nafarroako Gobernuak horretarako emandako araudia hartuko da erreferentzia gisa, ikerketan, garapenean eta berrikuntzan eskumena duen departamentuak lehiakortasuna hobetzeko garatutako diru-laguntzen deialdien esparruan.

Hamahiru. 64. artikulua aldatzea. A).2, 4.a), Laugarrena eta c) letra gehitzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

"2. Iturri berriztagarrietatik datorren energiatzat joko da iturri ez-fosiletatik datorren energia; hau da, haize-energia, eguzki-energia (termikoa eta fotovoltaikoa), energia geotermikoa, giro-energia, marea-energia, olatu-energia eta bestelako energia ozeanikoak, energia hidraulikoa, eta biomasa-tik, zabortegietako gasetatik, araztegi-tako gasetatik eta biogasetik datorrena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko aben-

duaren 11ko 2018/2001 Zuzentarauan definitzen diren moduan.

Bereziki, iturri berriztagarrietatik datorren energiatzat joko da hidrogeno berriztagarria, hots, aurreko paragrafoan aipatutako iturri ez-fosiletatik lortutako hidrogenoa”.

“Laugarrena. Autokontsumo partekatuko proiektu batean egindako inbertsioa edo energia-komunitate baten inbertsioa bada, kenkariaren ehunekoa 5 puntu gehituko da. Era berean, inbertsio hori egin bada toki administrazio eta despopulazioaren alorrean eskudun den departamentuko kontseilariaren foru agindu bidez despopulazio-arriskukotzat sailkaturiko udalerrri batean, kenkariaren ehunekoa 10 puntutan areagotuko da.

“c) Erabilera termikoetarako instalazioetan egiten diren inbertsioen kasuan, gasaren ordez hidrogeno berriztagarria erabiltzen bada, kenkariaren ehunekoa 15 puntu igoko da gehienez, hidrogeno berriztagarria erabiltzen den heinean”.

Hamalau. 64. bis artikulua gehitzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“64 bis artikulua. Kenkaria, garapen jasangarriko eta ingurumena babesteko eta hobetzeko proiektuei atxikitako ibilgetu material berriaren egindako inbertsioengatik.

1. Garapen jasangarrirako eta ingurumena babesteko eta hobetzeko proiektuak edo espezializazio adimenduneko proiektuak gauzatzeko beharrezkoak diren ibilgetu materialaren elementu berrietan egiten diren inbertsioek eskubidea emanen dute inbertsio horien zenbatekoaren 100eko 15eko kenkaria egiteko kuota likidoan.

2. Jarraian aipatzen diren jardueretako bat edo batzuk xede dituzten proiektuek aurreko atalean aipatutako kenkaria ehuneko 5ean handitzen ahaliko dute:

a) Beste enpresa batzuek sortutako haize-energiako, energia fotovoltaikoko eta baterietako osagaiak berrerabiltzea eta birziklatzea.

b) Hidrogeno berriztagarria ekoiztea.

c) Hidrogeno berriztagarriaren balio-kateko osagaiak fabrikatzea.

d) Nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueretan zero isurketako ibilgailuak edo biometanoa darabilten ibilgailuak erabiltzea.

e) Ekoizpen-planta bat berregokitzea, zero isurketako ibilgailuak edo horien osagaiak ekoizteko.

3. Kenkariaren oinarria Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren arabera diruz lagundu daitezkeen kostutzat hartzen diren inbertsioen zenbatekoak zehaztuko du. Erregelamendu horren bidez, laguntza-kategoria jakin batzuk barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz.

Inbertsioa zer egunetan jartzen den abian, egun horrek adieraziko du kenkaria egiteko eskubidea noiz sortzen den.

Energiaren arloko eskumena duen Nafarroako Gobernuako organoak txostena emanen du, honako hauek egiaztatzeko: 2. apartatuan adierazitakoetatik zer proiektu motari zuzentzen zaizkion inbertsioak, kenkariaren oinarria eta abian jartzeko data.

4. Kenkariaren zenbatekoa ez da 15 milioi eurotik gorakoa izanen proiektu eta enpresa bakoitzeko.

5. Artikulu honetan araututako kenkariaren zenbatekoak, zergadunak proiektu bakoitzeko jasotako gainerako laguntza publikoekin batera, ezin izanen ditu muga hauek gainditu:

a) 2.a) apartatuan jasotako jardueraren bat xede duten proiektuen kasuan, kostu diruz lagungarrien ehuneko 35; kostu horiek Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 47.7 artikuluan aurreikusitakoaren arabera zehaztuko dira.

b) 2. apartatuko b) eta c) letretan adierazitako jardueraren bat xede duten proiektuen kasuan:

1. Diruz lagundu daitezkeen kostuen ehuneko 45, baldin eta Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 41.6.a) edo b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera zehazten badira.

2. Diruz lagundu daitezkeen kostuen ehuneko 30, baldin eta Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 41.6.c) artikuluan aurreikusitakoaren arabera zehazten badira.

6. Kenkariak baliatzeko, ibilgetuaren barnean kontabilizatu beharko dira egindako inbertsioak, gaineko ondare elementuetatik bereizita eta haien identifikaziorako bidea emanen duen epigrafe baten pean. Era berean, inbertsio horiek zergadunaren ondarean egon beharko dute gutxienez bost urtez, edo, bizitza baliagarria laburragoa balitz, haren bizitza baliagarrian, eskualdatu edo laga gabe.

Finantza-errentamenduko kontratuen bidez egindako inbertsioak onartuko dira, nahiz eta, kontabilitate arauak aplikatzeagatik, inbertsio horiek ez kontabilizatu ibilgetu gisa.

7. Artikulu honetan ezarritako baldintzak ez betetzeak, finantza-errentamenduko kontratueta erosteko aukera ez erabiltzea barne, egindako kenkaria galtzea ekarriko du, eta 76.3 artikuluan ezarritakoa aplikatu beharko da”.

Hamabost. 65. ter artikulua gehitzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“65 ter artikulua. Kenkaria arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunetan inbertsioak egiteagatik.

1. Arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunen ekoizpenean eta erakusketan egindako gastuek ehuneko 30eko kenkaria izanen dute kuota likidoan.

Ehuneko 40ko kenkaria aplikatuko da nazioarteko bira baten parte den ikuskizuna bada.

Kenkariaren oinarria jarduera horietan sortutako zuzeneko kostuek (artistikoak, teknikoak eta sustapenaren arlokoak) osatuko dute.

Zergaldi bakoitzean sortutako kenkaria ezin izanen da izan 500.000 eurotik gorakoa zergadun bakoitzeko.

2. Kenkari hau aplikatu ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Zergadunak Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Nazionalaren ziurtagiri bat lortu izana, horretarako, ministro-agindu bidez ezartzen diren baldintzetan.

b) Kenkarirako eskubidea sortzen den zergaldian jarduera horiek garatzean lortutako etekinetatik, zergadunak gutxienez ehuneko 50 erabiltzea apartatu honetan aurreikusitako kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duten jarduerak egiteko.

Betebehar hori betetzeko epea etekin horiek lortu diren zergaldiaren hasieratik zergaldi hori itxi ondorengo 4 urteetara bitartekoa izanen da.

Kenkariaren zenbatekoak, zergadunak jasotako dirulaguntzekin batera, ezin izanen du gainditu gastu horien ehuneko 80ko muga”.

Hamasei. 66. artikulua gehitzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“66. artikulua. Enplegua sortzeagatik kenkaria.

1. Zergaldian zehar plantillaren batezbestekoak izandako gehikuntzagatik 2.500 euroko kenkaria aplikatuko da kuota likidoan, pertsona eta urte bakoitzeko, lan-kontratua mugagabea bada eta 27.000 euro baino gehiagoko soldata bada ekitaldian. Plantilla-gehikuntza hori neurtuko da zergaldia hasi aurre-aurreko hamabi hilabeteetan kon-

tratu mota hori zeukan plantillaren batezbestekoa-ekin alderatuta. Ondorio horietarako, entitate sortu berrien kasuan zero pertsona kontaktuko dira entitate-sorreraren aurreko denborari dagokionez.

Plantillan izan den batezbestekoaren gehikuntza kalkulatzeko, bakar-bakarrik zenbatuko da zenbat pertsona/urte dauden lan-kontratu mugagabearekin eta 27.000 euro baino gehiagoko soldatarekin. Lanaldi partzialeko kontratua duten langileen kasuan, benetan lan egindako orduen arabera proportzioan kontaktuko dira.

Kenkariak, guztira, ez du gaindituko zergaldi horretan entitatearen plantilla osoaren batezbestekoan urtean gehitutako pertsona kopuruari lego-kiokiena, edozein izanik kontratazio modua.

2. Baldin eta, aurreko zergaldiko plantilla osoaren batezbestekoa mantenduz, plantillan lan-kontratu mugagabea eta 27.000 euro baino gehiagoko soldata dutenen batezbestekoa handitzen bada eta gehikuntza hori entitatearen plantilla osoaren batezbestekoaren gehikuntza baino handiagoa bada, pertsona eta urte bakoitzeko 1.000 euroko kenkaria aplikatuko da bi gehikuntza horien arteko diferentziagatik.

Baldin eta, aurreko ekitaldiko plantilla osoaren batezbestekoa murriztuz, plantillan lan-kontratu mugagabea izanik 27.000 euro baino gehiagoko soldata dutenen batezbestekoa handitzen bada, aurreko paragrafoan aipatu kenkaria aplikatuko zaio aipatu den gehikuntzaren eta plantilla osoaren batezbestekoaren murrizketaren artean kasua bada suertatzen den diferentzia positiboari.

3. 1. eta 2. apartatuetan aurreikusitako kenkariak honako hauek izanen dira:

a) 5.000 eta 2.000 eurokoak izanen dira, hurrenez hurren, emakume langileen plantillako batezbestekoa handitzen duen pertsona eta urte bakoitzeko.

b) 6.800 eta 3.200 eurokoak, hurrenez hurren, desgaitasuna duten langileen plantillako batezbestekoa handitzen duen pertsona eta urte bakoitzeko, Ezgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginean xedatutakoarekin bat; testu hori azaroaren 29ko 1/2013 Errege Dekretu Legegilearen bidez onetsi zen.

4. Sozietate berriak sortzeko sozietate eta enpresa indibidualak bategiteak, zatitzeak edo eraldatzeak, eta oro har, enpresen ondorengotza edo jarraipenen kasuan, ez du berez enplegua sortzeagatik kenkaria aplikatzeko biderik ematen.

5. Entitatea Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aipatutako sozietate talde bateko kide denean, alde batera utzita egoitza non den eta urteko kontu kontsolidatuak aurkeztu beharra, kenkariaren oinarria finkatzeko kontuan hartuko da talde osoaren egoera.

Irizpide hori bera aplikatuko da baldin eta pertsona fisiko bat, bera bakarra edo ahaide dituen beste pertsona fisiko batzuekin elkar hartuta (ahai-deak lerro zuzenekoak nahiz aldamenekoak izan, odol bidezkoak nahiz ezkontza bidezkoak, bigarren graduraino, bigarrena barne), kide dituen beste entitate batzuekiko Merkataritza Kodearen 42. artikulua aipatzen dituen kasuetako batean gertatzen bada.

6. Aurreko apartatuetao kenkariak bateraezina dira elkarren artean.

7. 1., 2. eta 6. apartatuetao ezarritakoa aplikatzeko, lan-kontratu mugagabea eta soldata handiagoa duten plantillak zergaldi bakoitzean kenkaria aplikatzeko kontuan hartutako zenbatekoarekin alderatuko dira”.

Hamazazpi. 67. artikuluko 7. apartatua kentzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

Hemezortzi. 107. artikulua 1. apartatua aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“Taldea fiskalaren zerga-oinarria likidazio oinarri negatiboak kenduz murrizten ahalko da, 43. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Zerga-taldean sartzen den unean edozein entitatek likidazio-oinarri negatiboak konpentsatu gabe baditu, oinarri horiekin taldearen zerga-oinarria murrizten ahalko da, eta muga izanen da entitatearen zerga-oinarri indibiduala, ken, hala bada, 42.1 artikulua lehenengo eta bigarren zenbakietan aipatzen diren murriztapenen zenbatekoa, kontuan harturik entitate horri dagozkion ezabatzeak eta sartzeak, 104.2 eta 3 artikuluan ezarritakoarekin bat”.

Hemeretzi. 116. artikulua 2. apartatua aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“2. Ondorengo letretan aipatzen diren eragiketarik banaketarik izanen dira:

a) Entitate batek, likidaziorik gabeko desegitearen ondorioz, bere ondare sozial guztia bi edo zati gehiagotan zatitu, eta zati hauek aurretik badiren edo berriak diren beste sozietate bat edo batzuei eskualdatzen dizkienean, betiere sozietateen bazkideei, proportzionaltasunaren irizpidearen arabera,

ekarpena hartzen duten beste entitate horien kapital sozialaren balore adierazgarriak emanez egiten denean eskualdatze hori, eta, kasua bada, balio nominalaren % 10 baino handiagoa ez den diru-konpentsazioaren bidez. Balio nominalik ez bada, balore horien balio nominala kontabilitateki ondorioztatzen denaren parekoa izanen da.

b) Entitate batek jarduera-adarrak osatzen dituen bere ondare sozialaren zati bat edo batzuek banatzen dituen, eta blokean eskualdatzen dienean aurretik dauden edo sortu berriak diren entitate bati edo gehiagori, eta bere ondarean, gutxienez, jarduera-adar bat mantentzen badu entitate eskualdatzaileak, edo beste entitate batzuen kapitaleko partaidetzak, entitate horien kapital sozialaren gehiengoa ematen diotenak, eta, horren trukean, entitate eskualdatzaileen kapital sozialaren balore adierazgarriak jasotzen dituen, beraien partaidetzaren arabera bazkideei eman beharko dizkienak, kapital soziala eta erresebak beharrezkoa den zenbatekoan gutxituz, eta, hala bada, diru-konpentsazio bat, a) letran ezarritakoaren arabera.

c) Entitate batek bere ondare sozialaren zati bat banatzen duenean, beste entitate batzuen kapital sozialaren gehiengoa egiten duten partaidetzekin osatua, eta blokean eskualdatzen dizkienean aurretik dauden edo sortu berriak diren beste entitate bati edo gehiagori, eta bere ondarean, gutxienez, antzeko partaidetzak mantentzen baditu beste entitate baten edo batzuen kapitalean, edo, bestela, jarduera-adar bat, eta, horren trukean, entitate horien kapital sozialaren balore adierazgarriak jasotzen dituen, beraien partaidetzaren arabera bazkideei eman beharko dizkienean, kapital soziala eta erresebak behar den neurrian murriztuz, eta, hala bada, diru-konpentsazio bat, a) letran ezarritakoaren arabera.

Hogei. 132.bis artikulua gehitzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“132. bis artikulua. Kuotako kenkariak

Kuotaren kenkariak VI. tituluan aurreikusitako arauak aplikatuz zehaztuko dira. Hala ere, salbuesitako jarduerari soilik egotz dakizkiekeen gastuek eta inbertsioek ez dute kenkarirako eskubiderik emanen, 62. artikuluan aurreikusitakoaren arabera finantzatzen direnean izan ezik; kasu horretan, salbuesitako jarduerari egotz dakizkiekeen gastu eta inbertsioek emanen dute kenkarirako eskubidea. Salbuesi gabeko jarduerari partzialki egotz dakizkiekeen gastuek eta inbertsioek kenkarirako eskubidea emanen dute, salbuesi gabeko errentak dituzten jarduera ekonomikoetan eta gainera-ko jardueretan ekitaldian lortutako diru-sarrerek

entitatearen guztizko diru-sarreretan egiten duten ehunekoan.

Ez dute kenkarirako eskubiderik emanen Administrazio Publikoetako entitateek egindako jarduerara salbuetsiei baino egotzi ezin zaizkien gastuek eta inbertsioek».

Hogeita bat. Hirugarren xedapen gehigarria aldatzea. Ekintzaitzari laguntzeko neurriak. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“1. Ekintzaileak dira enpresa edo lanbide jarduerara bat egiten duten pertsona fisikoak eta entitateak, nortasun juridikoa izan ala ez, jarduerara hori betetzen duten lehen bost zergaldietan, baldin eta ondokoa betetzen badute:

a) Enpresa txikiaren izatea.

b) Altan emanda egotea jarduerara ekonomikoen gaineko zergan, ekintzaitzari laguntzeko neurriak jasotzeko moduan dauden zergaldietan, etenik gabe.

c) Entitateak badira, mozkinik ez banatzea edo ez banatu izana.

2. Honako hauek ez dira ekintzaitzat hartuko:

a) Ondasunen edo zerbitzuen ehuneko 75etik gora pertsona fisiko edo entitate bakar bati ematen dioten pertsona fisikoak edo entitateak, eta ekonomikoki mendekoa den langile autonomotzat joak dauden pertsona fisikoak, Lan Autonomoaren Estatutuari buruzko uztailaren 11ko 20/2007 Legearen II. tituluko III. kapituluan xedatutakoari jarraituz.

b) Pertsona fisikoak, baldin eta hasten badira lehenago, aurreko 5 urtean, edozein unetan, beraiek, beren ezkontideek, aurreko edo ondorengo ahaideek, edo haien partaidetza duten errentak eratzikitzeko araubideko entitateek, edo sozietateen gaineko zergaren zergadunak diren entitateek (haietan ehuneko 25eko partaidetza edo handiagoa badute) egin duten jarduerara batean.

c) Entitateak, baldin eta hasten badira lehenago, aurreko 5 urtean, edozein unetan, beraiek, edo beste entitate batek, zeinarekin kapitalaren titulartasunaren ehuneko 50 baino gehiagotan berdina baita, ehuneko 25eko partaidetza edo handiagoa duen bazkideren batek edo sozietateen talde bereko edozein entitatek (Merkataritzari buruzko Kodearen 42. artikuluan xedatutakoarekin bat) egin duten jarduerara batean, kontuan hartu gabe entitateen egoitza eta urteko kontu konsolidatuak egin beharra.

Enpresa oinordetza, jarraipena edo berregituratzea egiten bada, jarduerara bete zuen lehenbiziko pertsonak edo entitateak jarduerara hasi zuenetik aurrera kontatuko da 5 zergaldiko epea.

Jardueraren hasiera izanen da pertsona fisikoak edo entitateak jarduerara ekonomikoen gaineko zergan alta eman behar duen unea, zerga horri buruzko arauekin bat.

3. Pertsona edo entitate ekintzaileen onura fiskalak:

a) Ez dute izanen pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren konturako ordainketa zatikatua egin beharra.

b) Zerga Administrazioak baimena emanen du, alde aurreko eskaera eginik, bermerik aurkeztu behar izan gabe eta berandutze-interesa sortu gabe, bai sozietateen gaineko zergan bai pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergan, enpresa edo lanbide jarduerara dela-eta sartu beharreko kuota geroratzeko. Geroratuko kuotaren sarrera zergaldi bakoitzeko aitorpen-likidazioa aurkezteko epea bukatzen den egunetik hasi eta hamabi hilabeteko epean egin beharko da.

c) Zerga Administrazioak baimena emanen du, alde aurreko eskaera eginik, bermerik aurkeztu behar izan gabe eta berandutze-interesa sortu gabe, beren langileei pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergan egindako konturako atxikipenak geroratzeko. Geroratutako kopuruen sarrera hurrengo urteko otsaileko azken eguna baino lehen egin beharko da.

d) Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren zergadunek ehuneko 70 murriz dezakete beren enpresa edo lanbide jardueraren errendimendu garbia positiboa den lehen eta bigarren zergaldietan, baldin eta zergaldi horiek 5 urteko epearen barnean badaude jarduerara hasi zenetik aurrera. Murriztapen hori aplikatzeko, zuzeneko zenbatespenaren araubidean zehaztu behar da enpresa edo lanbide jardueraren etekin garbia.

e) Sozietateen gaineko zergaren zergadunek ehuneko 70 murriz dezakete zerga-oinarria positiboa den lehen eta bigarren zergaldietan, baldin eta zergaldi horiek 5 urteko epearen barnean badaude jarduerara hasi zenetik aurrera. Jarduerara ekonomiko bat garatzetik heldu den zerga-oinarriaren zatiari baino ez zaio aplikatuko murriztapen hori.

f) Foru lege honen 58. artikuluko kenkaria aplikatu dezakete, nahiz eta 59.b) artikuluko aipatzen duen baldintza ez bete.

g) Jarduera berritzaile bat egiten badute edo bereziki sustatu gogo den sektore batekoa edo espezializazio adimentsukoa:

1) Foru lege honen 58. artikuluko kenkaria aplikatuz, ehuneko 5 puntu gehituta.

2) 78.2 artikuluan aipatzen diren ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-jarduerak egiteagatik kenkari espezifikoa dagokion itzulketaren muga. 2) 100.000 euro handituko da.

h) Foru Lege honen 43. artikuluan 1. apartatuan ezarritako muga ez zaie aplikatuko hirugarren xedapen gehigarri honetan jasotako entitateei, likidazio-oinarri positiboa sortu eta lehenengo 3 zergaldietan, betiere, aipatutako baldintza betezen jarraitzen badute.

i) Sozietateen gaineko Zergako zergadunek, hirugarren xedapen gehigarri honen 1. apartatuan xedatutakoaren arabera entitate ekintzailatzat jota badaude, ehuneko hamarreko karga-tasa ordainduko dute likidazio-oinarria positiboa den zergaldian eta hurrengo hiru urtetan, betiere, aipatutako baldintza betetzen jarraitzen badute”.

4. Entitate ekintzaileetan inbertitzen duten pertsonen edo entitateen onura fiskalak.

a) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek eta sozietateen gaineko zergari lotutako zergadunek % 40ko kenkaria egiten ahaliko dute entitate ekintzaileen kapitala eratu edo handitzetik heltzen diren akzioen edo partaidetzen harpidetza egitean ordaintzen duten diru kopuruan, baldintza hauek betetzen badira:

i) Inbertsioa jasotzen duen entitateak Nafarroako foru araudia aplikatu behar du sozietateen gaineko zergan.

ii) Pertsona fisikoa den zergadunaren partaidetza ezin da izan, zergaldiaren egun bakar batean ere, inbertsioaren xedeko sozietatearen kapital sozialaren edo boto-eskubideen ehuneko 40tik gorakoa. Horretarako, kontuan hartuko da, orobat, subjektu pasiboaren ezkontidearen partaidetza eta haren odol edo ezkontza bidezko zuzeneko edo alboko ahaideena, hirugarren mailara arte, horiek barne. Partaidetzaren muga hori hiru urtez bete beharko da gutxienez, sozietatea eratzeko edo kapitala handitzeko erabakiak eragina hartzen duen egunetik aurrera.

iii) Zergadunaren partaidetza, hura pertsona juridikoa denean, bere talde berean dauden gaineko sozietateen partaidetzarekin batuta (Merkataritzari buruzko Kodearen 42. artikuluan zentzuan), kontuan hartu gabe entitateen egoitza eta urteko kontu kontsolidatuak egin beharra, ezin

da inbertsioaren xedeko sozietatearen boto-eskubideen edo kapital sozialaren ehuneko 40tik gorakoa zergaldiko ezin egunetan. Partaidetzaren muga hori hiru urtez bete beharko da gutxienez, sozietatea eratzeko edo kapitala handitzeko erabakiak eragina hartzen duen egunetik aurrera.

iv) Zergadunak, pertsona fisikoa bada, parte har dezake bere inbertsioa hartu duen sozietatearen administrazio kontseiluan, baina ezin du inola ere hango betearazpen edo zuzendaritza eginkizunik bereganatu. Laneko edo lanbideko harremanik ere ezin du izan entitatearekin inbertsioaren aldian eta hurrengo bietan.

v) Zergadunaren ondarean mantendu behar dira akzioak edo partaidetzak, gutxienez 3 urteko epean. Epe horretan, entitateak jarraitu behar du jarduera ekonomiko bat gauzatzen.

vi) Kenkari hori aplikatzeko, Zerga Administrazioak alde aurretik egiaztatu behar du aurreko baldintzak betetzen direla eta, inbertsioa zer entitate egiten den, horrexek erregistraturik egon behar du 6. apartatuak araututako pertsona edo entitate ekintzaileen erregistroan. Erregistroan inskribatzen den egunetik aurrera eta egun horren aurreko 6 hilabetearen egindako inbertsioek izanen dezakete kenkaria.

Harpidetutako akzioak edo partaidetzak badauzkiz jarduera berritzaile bat egiten duten entitateei edo bereziki sustatu gogo den sektore bateko edo espezializazio adimentsuko entitateei, kenkaria izanen da egindako diru-ekarpenaren zenbatekoaren ehuneko 45ekoa.

vii) Kenkariaren gehieneko zenbatekoa 80.000 eurokoa izango da zergaldiko. Zenbateko hori 130.000 eurokoa izatera pasako da, inbertsioa zer entitate egiten den, horrexek jarduera berritzaile bat egiten badu, edo bereziki sustatu gogo den sektore batean sartuta badago, edo espezializazio adimentsukoa bada. Kuota aski ez izateagatik kenkaririk gabeko zenbatekoak kenkaria izan dezake hurrengo 15 zergaldietan.

b) Salbuetsita egonen dira gauzako lan-ordainsariak, sozietateek beren akzio edo partaidetzak jarduneko langileei doan edo merkaturiko prezio normala baino merkeago ematearen ondorioz sortutakoak, baldin eta xedapen gehigarri honetan jasotakori jarraikiz ekintzailatzat jotako entitateetako langileei aurretiaz emandako akzioen edo partaidetzen gaineko erosteko aukera baliatzearen ondorio badira, eta langile bakoitzari guztira emandakoaren zenbatekoa ez bada 50.000 eurotik gorakoa urtean”.

c) Kargatik salbuesten ahalko dira xedapen gehigarri honetan araututako kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duten entitate ekintzaileetako akzioak eta partaidetzak eskualdatzeagatik lortutako ondare gehikuntzak, baldin eta haien zenbateko osoa berrinbertitzen bada kenkari hori aplikatzeko eskubidea ematen duten beste entitate ekintzaile batzuetako akzioak edo partaidetzak eskuratzeko.

Berrinbertitutako zenbatekoa txikiagoa bada eskualdaketa jasotako guztizkoa baino, zergapezetik salbuetsiko da berrinbertitutako zenbatekoari dagokion ondare gehikuntza lortuaren zati proportzionala bakarrik. Letra honetan xedatutako zerga-onura bateraezina izanen da, berrinbertisioa gauzatzen den akzio edo partaidetza eta zenbateko berberetarako, xedapen gehigarri honetan araututako kenkariarekin.

5. Zer den jarduera berritzailea edo bereziki sustatu gogo den sektore batekoa edo espezializazio adimentsukoa.

Jarduera berritzaileztat edo bereziki sustatu gogo den sektore batekotzat edo espezializazio adimentsukotzat joko da garapen ekonomikoaren arloan eskuduna den departamentuan halakotzat joa dena.

6. Pertsona edo entitate ekintzaileen erregistroa.

Xedapen honetan zehazten diren onura fiskalak aplikatzeko, zergadunek pertsona edo entitate ekintzaileen erregistroan inskribatzeko eskaera egin beharko dute.

Erregistroko inskripzioa jarduera hasten denean aurrera egin daiteke.

Erregistroan inskripzioa egiten den egunetik aurrera aplika daitezke onura fiskalak, eta gehienez ere 5 zergalditan, jarduera hasten den egunetik aurrera.

7. Ezin izanen dute araubide honetako onura fiskalik eskuratu pertsona edo erakunde ekintzaileek, beraiek edo bitarteko pertsona batek sortu edo zuzendutakoek, tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez badituzte, eta epai irmo bidez kondena jaso badute administrazio desleialaren, zigortzeko moduko kaudimengabeziaren, sozietate-delituaren, kapitalak zuritzearen eta terrorismoa finantzatzaren delituengatik, Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren aurkako delituengatik, prebarikazio, funtzionario-eroskeria, influentzia-trafiko, ondasun publikoak bidegabe erabiltzearen, iruzurren eta legearen aurkako ordainarazpenen delituengatik edo hirigintza-delituengatik, bai eta

dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorra jasotakoek ere. Administrazioarekin kontratatzeko aukera galdu dutenek ere ezin izanen dituzte baliatu onura hauek.

8. Ez-betetzeak.

Xedapen honetan eskatzen diren baldintzak bete beharko dira araubide honen onura fiskalak izateko eskubideaz baliatzeko.

Aurreko apartatueta ezarritako baldintzaren bat betetzen ez bada edo erregistroetako datuak zuzenak ez direla edo faltsuak direla egiaztatzen bada, hori aski izanen da erregistroko inskripzioa ukatzeko edo, zergadunak jadanik inskribatuta baldin badaude, erregistro horretatik baztertzeko.

Ez-betetze horrek ekarriko du izandako onura fiskalak galtzea. Izandako onura 3. apartatuko b) eta c) letretan zehaztutako geroratzeetako edozein denean, pertsona edo entitate ekintzaileak ordaindu beharko du, hilabeteko epean ez-betetzea gertatzen denean aurrera, geroratutako zenbatekoa, gehi bidezko berandutza-interesak. Gainerako kasuetan, pertsona edo entitate ekintzaileak ordaindu beharko du, ez-betetzea gertatzen den zergaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo sozietateen gaineko zergaren kuotarekin batera, gaizki aplikatutako kenkariari edo murriztapenari dagokion kuota osoa, gehi berandutza-interesak.

4. apartatuan ezarritako baldintzetako edozein ez-betetzeak ekarriko du, inbertisioa egin duen pertsonarentzat edo entitatearentzat, egindako kenkarirako eskubidea galtzea. Hortaz, ez-betetzea gertatzen den zergaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo sozietateen gaineko zergaren kuotarekin batera, gaizki aplikatutako kenkariari dagokion kuota osoa ordaindu beharko du, gehi berandutza-interesak.

9. Zerga arloko eskumena duen departamentuko titularrari gaikuntza ematen zaio beharrezko xedapenak eman ditzan xedapen hau garatzeko. Zehazki, gaitasuna ematen zaio Pertsona edo entitate ekintzaileen erregistroa eta horretan inskripzioa egiteko prozedura arautzeko.

Hogeita bi. Hamazazpigarren xedapena indargabetzea. 2022an hasten diren zergaldietan likidazio oinarri negatiboak murrizteko mugak. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

Hogeita hiru. Hogeita hirugarren xedapen gehigarria gehitzea. Enpresen ekarpenengatiko kenkaria 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Hogeita laugarren xedapen gehigarria. Enpresen ekarpenengatiko kenkaria

1. 51.1.b) artikuluan araututako zerga-tasa aplikatu behar duten sozietateen gaineko zergaren zergadunek urtean 40.000 eurotik beherako ordainsari gordinak ematen zaizkien langileen alde enpresek egotzitako ekarpenen % 20 kendu ahal izanen da kuota likidotik, betiere ekarpen horiek enpleguko pentsio planetarako, enpresako gizarte-aurreikuspen planetarako, Enpleguko pentsio funtsen jardueri eta gainbegiratzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341 Zuzentzarauan araututako pentsio planetarako edo gizarte-aurreikuspeneko tresna gisa diharduten gizarte-aurreikuspeneko mutualitateetarako egiten badira, eta zergaduna haien sustatzailea bada. Kenkaria izateko eskubidea emanen dute pentsio planen balioak diren estalduretarako enpresek egiten dituzten kontribuzioek ere (azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Testu Bategina, pentsio plan eta funtsak arautzen dituen), baita pentsio sortuek ere, baldin eta aipatu testu bateginean xedatutako moduan gauzatu badira.

2. Langileen urteko lansari gordina 40.000 eurotik gorakoa baldin bada, 1. zenbakietan aurreikusitako kenkaria proportzioan aplikatuko dira, hau da, enpresak 40.000 eurorentzat egindako enpresa-kontribuzio eta -ekarpenei dagokien zati proportzionalen”.

Hogeita lau. Hogeita laugarren xedapen gehigarria gehitzea. Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko plan nazionalaren esparruan emandako laguntzak. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Hogeita laugarren xedapen gehigarria. Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko plan nazionalaren esparruan emandako laguntzak.

2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege-dekretuaren babesean emandako laguntzak Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira. Errege lege-dekretu horren bidez, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko, kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko eta La Palma uhartearen susperraldi ekonomiko eta sozialerako zenbait neurri hartu eta luzatzen dira, bai eta abuztuaren

1eko 14/2022 Errege Lege-dekretuaren babesean emandako laguntzak ere (14/2022 Errege Lege-dekretua, Garraioaren arloko jasangarritasun ekonomikoko neurriei buruzkoa, ikasketetarako beka eta laguntzei dagokienez, eta aurrezpen neurriei, energia-efizientziari eta gas naturalaren mendeotasun energetikoa murrizteari buruzkoa)”.

Laugarren artikulua. Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren xedapenak biltzen dituen testu bategina.

Abenduaren 16ko 250/2002 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren xedapenen testu bategineko manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 3.2 artikulua aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“2. Zerga honetarako, adopzioa eta odolkidetasuna parekatu egiten dira. Era berean, ulertuko da adoptatuak eusten diola adopzioa eratu aurretik jatorrizko familiarekin zuen ahaidetasun-mailari”.

Bi. 11. artikuluko c) letrako b' letra aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“b') Eskuraketa kausatzailea hil eta hurrengo bost urteetan mantentzea, salbu eta eskuratzailea epe horren barruan hiltzen bada edo enpresa edo erakundea konkurtso-prozedura baten ondorioz likidatzen bada”.

Hiru. 11. artikuluko c) letraren bukaeran paragrafo bat gehitzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

«Aurreko paragrafoetan aipatutako entitateen partaidetzen eta gozamen-eskubideen eskuraketetan, salbuespena kalkulatzeko aintzat hartuko da jarduera ekonomikorako beharrezkoak diren aktiboen balioaren –jardueraren ondorio diren zorren zenbatekoa kenduta– eta entitatearen ondare garbiaren balioaren artean dagoen proportzioa, eta, hala badagokio, erregela hauek aplikatuko dira partaidetzako entitateen akzioen eta partaidetzen ebaluazioan haren entitate edukitzailearen akzio eta partaidetzen balioa zehazteko. Aktibo bat jarduera ekonomiko bat garatzeko beharrezkoa den ala ez zehazteko, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 5.8.Hiru artikuluan xedatutakoa aplikatuko da”.

Lau. 12. artikuluko d) letraren bukaeran paragrafo bat gehitzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

«Entitateen partaidetzen eta gozamen-eskubideen eskuraketetan, salbuespena kalkulatzeko

aintzat hartuko da jarduera ekonomikorako beharrezkoak diren aktiboen balioaren –jardueraren ondorio diren zorren zenbatekoa kenduta– eta entitatearen ondare garbiaren balioaren artean dagoen proportzioa, eta, hala badagokio, erregela hauek aplikatuko dira partaidetzako entitateen akzioen eta partaidetzen ebaluazioan haren entitate edukitzailearen akzio eta partaidetzen balioa zehazteko. Aktibo bat jarduera ekonomiko bat garatzeko beharrezkoa den ala ez zehazteko, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 5.8.Hiru artikuluan xedatutakoa aplikatuko da”.

Bost. 34. artikuluko 1 a) letrako 1.a eta 2.a apartatuak aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“34, 1, a) artikulua

1.a Ezkontideak edo bikote egonkor bateko kideak, beren legeria espezifikokoaren arabera, aurreko edo ondorengo zuzenak, odol bidezkoak, adoptatzaileak edo adoptatuak, herentzia, legatu edo beste edozein oinordetza-tituluren bidezko “mortis causa” eskuraketak direnean, bai eta biziaren gaineko aseguru kontratuen onuradunek jasotako zenbatekoak direnean, 8.a c) artikuluan aipatzen direnak.

Karga-tasa:

– 400.000 eurorainoko likidazio-oinarria: ehuneko 0.

– Gainerako oinarria ehuneko 0,80.

2.a Ezkontideak edo bikote egonkor bateko kideak, beren legeria espezifikokoaren arabera, aurreko edo ondorengo zuzenak, odol bidezkoak, adoptatzaileak edo adoptatuak, dohaintza bidezko edo doako eta beste edozein negozio juridikoaren bidezko “inter vivos” eskurapenak direnean, bai eta biziaren gaineko aseguru kontratuen onuradunek jasotako zenbatekoak direnean, 8. artikulua-ren d) eta e) letretan aipatzen direnak.

Karga-tasa: ehuneko 0,8.

Sei. 34. artikuluko 3.a eta 4.a apartatuak indargabetzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

Bosgarren artikulua. Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Erregelamendua (16/2004 Foru Dekretua, urtarrilaren 26koa).

Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Erregelamenduaren manu hauek (erregelamendua urtarrilaren 26ko 16/2004 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen) honela idatzita geldituko dira:

Bat. 4. artikulua aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Testu Bateginaren 8.a) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, besteak beste, oinordetza-titulu dira, jaraunspenaz eta legatuaz gain, hauek: oinordetza-kontratu edo -itunak eta “mortis causa” dohaintza eta hari parekatutakoa, Testu Bateginaren 43. artikulua-ren lehen paragrafoan ezartzen den moduan; ondasunen eskualdatze eguneratua duten oinordetza-itunak edo kontratuak; albazea eta konfiantzako jaraunsleei beren lan hori egitea-gatik diru kopuruak jasotzeko eskubidea ematen dietenak, diru kopuru horiek usadio eta ohiturek ezarritakoa gairatzen duten heinean edo oinordetzan utzitako ondasunen balio egiaztatuaren % 10 gairatzen dutenean”.

Bi. 5. artikulua aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Testu Bateginaren 8.b) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, “inter vivos” eta doako negozio juridiko dira, besteak beste, aipatu 8. artikulua-ren b), d) eta e) letretakoez gainera, honako hauek:

a) Testu bategin horren 43. artikulua-ren bigarren paragrafoak aipatzen duen “mortis causa” dohaintza.

b) Zorraren barkamena, osoa edo partziala, eskuzabaltasunez egina.

c) Eskubideei uko egitea pertsona jakin baten alde.

d) Auzian edo arbitrajean atzera egitea edo beste alderdiaren eskaria onartzea, eskuzabaltasunez egina, baita halako asmoz egindako edozein transakzio, baldin eta ukoa, atzera egitea edo onarpena badakar.

e) Besteren zorra ordainik gabe eskuzabaltasunez bere gain hartzea, Testu Bateginaren 27. artikuluan ezarritako kasuan izan ezik”.

Seigarren artikulua. Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren xedapenak biltzen dituen testu bategina.

Apirilaren 26ko 128/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari buruzko xedapenen testu bateginaren manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 4. artikulua-ren 1. apartatua aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“1. Aurreko artikuluan zerrendatutako eragiketak ez dira titulu honetan araututako kostu bidezko

ondare eskualdaketak izanen, enpresaburu edo profesional batek bere enpresa edo lanbide jardueran gauzatu badu ondasun entrega edo zerbitzu egitea eta, edozein kasutan, balio erantsiaren gaineko zerga ordaindu behar duten ondasun entregak edo zerbitzu egiteak badira. Hala ere, zerga kontzeptu horrengatik ordaindu beharko dute ondasun higiezinaren entregek edo errentamenduek, baita horien gaineko erabiltze eta lupertze eskubide errealean eraketak edo eskualdaketak ere, baldin eta eragiketa horiek balio erantsiaren zergatik salbuetsita badaude, salbu subjektu pasiboak salbuespen horri uko egiten badio zergaren foru legean jasotako inguruabar eta baldintzekin; enpresa edo lanbide ondarearen parte diren elementu gorpuzdunen edo, kasua bada, gorpuzgabeen multzo baten eskualdaketan sartzen diren higiezinaren entregek ere ordaindu behar dute, baldin eta elementu horiek berez enpresa edo lanbide jarduera bat garatzeko gauza den unitate ekonomiko autonomo bat osatzen badute, betiere bere inguruabarrengatik ondare horren eskualdaketak balio erantsiaren gaineko zerga ordaindu behar ez badu.

Apartatu honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko konkurtso-prozeduren barruan egindako unitate produktiboen eskualdaketari, baldin eta unitate produktibo horietan sartutako higiezinaren emateei dagokien kuotan kenkaria ezartzeko eskubidea duen balio erantsiaren gaineko zergaren zergaduna bada eskuratzaila, unitate horiek zerga horri lotuta eta zergatik salbuetsita daudenean».

Bi. 8. artikuluko 1. apartatuko b) letra aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“b) Aurreko letran xedatutakoaren salbuespen gisa, etxebizitzaren eskualdaketak, horien garajeak eta eranskin banaezinak bane, honela tributatu du:

1. 100eko 5ko tasa aplikatuko da, baldin eta ondoko baldintza hauek betetzen badira:

a') Eskuratzaila bi seme-alaba edo gehiagoko osatutako familia-unitate bateko kide izatea.

b') Eskualdaketaren ondorioz etxearen jabari osoa eskuratzea, inoiz ere izan gabe lehenago usufuktuan eta jabetza soilean banaturiko jabariaren kontsolidazioaren ondorio. c') Etxebizitza familia-unitatearen ohiko bizileku gisa erabiltzea.

d') Eskurapenaren unean, familia-unitateko ezein kide ez izatea Nafarroako Foru Komunitatean kokatutako beste etxebizitza baten 100eko 25en edo gehiagoren jabe.

Tasa murriztua gehienez ere 180.304 euroko zerga-oinarri bati aplikatuko zaio, eta bakarra izanen da familia-unitateko eta etxebizitzako.

Zerga-oinarri horrek kopuru hori gaintzen badu, 100eko 5eko tasa 180.304 eurori baizik ez zaie aplikatuko, eta hortik gorakoari, berriz, higiezinaren eskualdaketari dagokien tasa orokorra.

Zenbaki honen ondorioetarako, familia-unitatearen kontzeptua ulertuko da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudian ezarritako moduan.

2. 100eko 4ko tasa aplikatuko da, etxebizitza subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza denean eta despulazio arriskuan dagoen udalerrri batean kokatuta dagoenean; toki administrazioaren eta despulazioaren arloko eskumena duen departamentuko titularraren foru agindu bidez ezarriko da zein diren udalerrri horiek. Eskualdaketa formalizatzen duen agiri publikoan berriaz agertu beharko da ohiko etxebizitza gisa erabiliko dela.

b) letra honen ondorioetarako, ohiko etxebizitzaren kontzeptua ulertuko da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudian definitutako moduan.

Erregelamenduz ezarriko da letra honetan ezarritako baldintzak ziurtatzeko zein agiri behar diren”.

Hiru. 35.I.B) artikuluari 34. apartatua gehitzea.

“34. Emakumearen aurkako indarkeriaren ondorioz hildako emakumeen kasuan, indarkeria mota hori legeak edo Espainiak berretsitako nazioarteko tresnek definitzen duten moduan ulerturik, kalte-ordainak pagatzeko edozein tituluren bidez egindako ondasun edo eskubide eskualdaketak, judizialki aitortutako zenbatekoaren araberrakoak, kalte-ordain horien onuradunak direnean hildako emakumeen kargura zeuden seme-alabak, tutoretzapeko adingabeak edo desgaitasuna duten eta beren gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntza neurriak dituzten pertsonak”.

Zazpigarren artikulua. Saltoki handien gaineko zerga.

Bat. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 27ko 30/2018 Foru Legearen hamaikagarren artikuluko hiru.4 apartatuari c) letra gehitzen zaio:

“c) Beste autonomia erkidego baten hiriburutik 15 kilometro baino gutxiagora kokatutako saltokiak, baldin eta beste autonomia erkidego horretan ez badago saltoki handien gaineko zergaren antzeko zergarik, nahiz eta merkataritza-eremu berean egon”.

10-22/LEY-00012. Foru Lege proiektua, justizia errestitatiboari, bitartekaritziari eta jardunbide errestitatibo komunitarioei buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, honao erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Justizia errestitatiboari, bitartekaritziari eta jardunbide errestitatibo komunitarioei buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2023ko urtarrilaren 20ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua

2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

